



ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA
GARRAIO SAILA

Etxebizitza Sailburuordetza

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTE

Viceconsejería de Vivienda

Dirección de Vivienda, Innovación y Control

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA 2010



**URTEKO TXOSTENA
2010
IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL
KONTSEILUA**

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK	3
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK	4
3.- IRISGARRITASUNAREN GAINEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA....	34
3.1.- Aholkuak emateko eta kontsultak ebazteko zerbitzua	34
3.2.- Babes teknikoa Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta Batzorde Iraunkorrari eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari.....	39
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PLANTEATUTAKO GAIEN LABURPENA	42
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak	42
4.2.- 2010. urteko salbuespenen jakinarazpena.	45
5.- IRISGARRITASUNERAKO PLAN ETA OBREN LAGUNTZA EKONOMIKOETARAKO DEIALDIA UDALEI.....	60

1.- AURREKARIAK

Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea onartzeko helburua honakoa izan zen: hiri-ingurunearen, guneko publikoen, eraikinen, garraio-bideen eta informazio eta komunikazio sistemak irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek, eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikazio-arazoak edo muga psikiko zein sensorialak, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta gozatu ditzaten.

Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeko V. tituluak IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA sortzen du 24. artikuluan, aholku eta partaidetzarako organo gisa, eta bertan honako hauek egongo dira ordezkaturak: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde jardutea xede duten elkarte-erakundeetatik ordezkari handiena dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetatik ordezkari handiena dutenak eta Arkitektoen, Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen eta Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien elkargoak, 20/1997 Legeko 25. artikuluan aurreikusitako osatura eta egiturarekin.

26. artikuluan xedatutakoaren arabera, honakoak dira Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Lege honen aurreikuspenen betearazpen-mailari buruzko urteko txostena egitea eta gero legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren gaineko organo eskudunei jardura-irizpideak aholkatu eta proposatzea, Legean xedatutakoari jarraiki.
- c) Bere antolaketa eta jardunbiderako arauak onartzea.
- d) Agintzen zaizkion beste eginkizun batzuk.

Hori horrela, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak agindutako eginkizuna betez, jarraian Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2010. urteko jarduerari buruzko txostena aurkeztuko da.



2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua osoko bilkuran batu da, 2010eko ekainaren 21ean.

Jarraian, Kontseiluaren osoko bilkuraren bilerako akta laburbildu da eta bertan jorratutako gaiak zerrendatu dira. Akta hori Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileran onartuko da.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2010eko ekainaren 21eko bilera

Bertaratuak:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Kontseilaritza. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Zerbitzu Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Baliabide Orokorren Zuzendaritza. Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Baliabide Material, Sistema Informatiko eta Antolaketa Zuzendaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Larrialdiei Aurregiteko eta Babes Zibilerako Zuzendaritza. Herrizaingo Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Kupoko eta Finantza Ekarpenteko Zuzendaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Turismo Zuzendaritza. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Kabinete Teknikoa.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Elkartean Bizkaia

Elkartean Gipuzkoa

Elkartean Araba

ONCEko Lurralde Kontseilua

Gorren Elkartean Euskal Federazioa – Euskal Gorrak

ADEGIko sektoreko koordinakundea

Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoa

EUDEL

Bide, Kanal eta Portu Ingeniarien Elkargoa

Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa.

EZIN IZAN DIRA ETORRI:

Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

Eraikin Elkartuen Ataleko Burutza. Arabako Foru Aldundia

LAGUNTZA TEKNIKOA:

Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko Idazkaritza.
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Irigarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko arkitektoa

Irigarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko legelaria

Administrazio Laguntza eta Irigarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko
Idazkaritza

2010eko ekainaren 21ean, Ignacio de la Puerta Rueda jaunak, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak, hasi du batzarra. Etorri direnei eskerrak eman dizkie, etortzeagatik. Azaldu duenez, Kontseiluaren batzarraren atzerapena gobernu-aldaketaren ondorioz gertatu da. Izan ere, Irigarritasuna Sustatzeko Euskal

Kontseiluko ordezkari berriak izendatu behar izan dituzte jaurlaritzako sailek. Gainera, kontseiluaren egitura eta osaera aldatu dira. Errealitate hori kontuan izanik, eta 2009. urtean irisgarritasuna sustatzeko deitu zen diru-laguntzen aginduaren ebazpenari buruzko informazioa Euskal Kontseiluaren 2009. urteko txostenari gehitu behar zaionez, osoko bilkurak onesteko eta gero Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko, eta Euskal Kontseiluaren batzarrak egiteko deialdien epeak kontuan izanik, Iriagarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkura atzeratu da.

Ignacio de la Puerta Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak, Euskal Kontseiluaren idazkaria den aldetik, haren kideei Ignacio María Arriola López jauna aurkeztu die, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua eta Iriagarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko lehendakaria dena. Etorri diren kideei (ia guztiak Euskal Kontseiluko kide berriak) beren burua aurkezteko eskatu die.

Deialdian proposatu diren aztergaiei heldu aurretik, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak hitza hartu du. Etorri direnei agurra egin die, etortzea eskertu die eta gogoeta batzuk azaldu dizkie, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren ikuspegitik legegintzaldi honetan Euskal Kontseiluak kontuan izan behar dituenak. Honela:

Ignacio Arriola jaunaren ustez, Eusko Legebiltzarrean Iriagarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea aho batez onartu zenetik eta gero 68/2000 Dekretuaren bidez garatu zenetik, denbora nahikoa pasa da ebaluazio bat egin ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren egungo egoera zein den aztertze aldera; egia da udalerri askok Iriagarritasun Plana dutela eta horietako nahikotxo eguneratu direla, baina udalerri batzuek oraindik ez dute planik eta gehienek ez dituzte prestatu 20/1997 Legean aurreikusietako lau urteko planak, apurka-apurka egokitzen joatekoak. Laburbilduz, Iriagarritasun Planen garapen- edo egikaritze-egoera eta irismena zein den jakitea nahitaezkoa da. Izan ere, EAEn irisgarritasunaren gaineko egungo diagnostikoa egitea beharrezko abiapuntua da herri-administrazio desberdinek beren esku-hartzeak programa ditzaten eta beren jarduera-eremu desberdinetan irisgarritasuna sustatzeko erantzukizuna egozten dien araudi-agindua bete ahal dezaten.

Horregatik, herri-administrazioek ondo pentsatu behar dute beren jardueraremuetan egin dituzten esku-hartzeak zeintzuk izan diren, nolako inbertsioak egin dituzten eta oraindik egiteko dauzkaten jarduera eta inbertsioak zeintzuk diren. Beharrezkoa da, halaber, EAEko higiezinaren parkearen irisgarritasun-maila jakitea, egin behar diren egokitzapenak zeintzuk diren jakiteko.

Diagnostikoaren bidez, alde batetik, kasu bakoitzeko betearazpen-maila zehaztu ahalko da; bestetik, jardueren egutegia egiteko balioko du, egiteke dauden jarduerak gauzatzeko behar diren denbora eta baliabideak kuantifikatuta.

Lan horiek, Arriola jaunak azaldu duenez, administrazio desberdinen arteko komunikazio eta koordinazioko kanal egokietan izan behar dute beren oinarria. Izan ere, kanal horiek ezinbestekoak dira irisgarritasun-gaietan jarduteko jarduerak eta oinarrizko irizpideak definitzeko: irisgarritasun-politikak, koordinatutako dirulaguntzen lerroak, baterako eta koordinatutako jarduketak eta inbertsioen egutegien definizioa...

Egindako diagnostikoan eta egin beharreko jardueren egutegian oinarrituta, eta administrazio guztien artean koordinatutako premisak kontuan izanik, Euskadiko Irisgarritasun Plana zehazteko moduan egongo gara. Plana Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak eta, bidezkoa baliatuz, Eusko Legebiltzarrak eta foru aldundiek onetsi beharko lukete, beraz gauzatzeko behar diren aurrekontu-partidak konprometitu ahal izateko.

Arriola jaunak adierazi du bere sailak interesa duela, Euskal Kontseiluko kideen babesarekin, Arartekoarekiko lankidetzak eta koordinazio-lerroan sakontzeko. Bere ustetan, etxebizitzetan eta lokaletan egokitzapenak egiteko proba-leku bat sortzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak, 2009ko maiatzaz geroztik bere saileko burua denak, Euskal Kontseiluari adierazi dio bere sailak konpromiso garbia duela EAEko pertsona, herri eta hiri guztien irisgarritasun-baldintzak hobetzeko. Ildo



horretan, Ignacio Arriola jaunak gai honetaz Etxebizitzaren Gizarte Itunak egiten duen berariazko aipamena gogorarazi du. Gainera, premisa hori bere programa-printzipioetako askoren funtsean dago. Garraioari dagokionez, Arriola jaunak esan du datorren urteko otsailean Eusko Trenen unitate berri batzuk edukitzeak hobekuntza nabarmenak ekarriko dituela irisgarritasun-baldintzetan.

Jarraian, deialdian proposatutako **GAI-ZERREND**A jorratzeari ekin zaio.

Lehen puntua: Aurreko Kontseiluaren akta irakurri eta onestea (2008ko irailaren 29a)

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2008ko irailaren 29an egin zuen osoko bilkurako akta onestea.

Bigarren puntua: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2008 eta 2009ko Txostena aurkeztu eta onestea.

ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2008 eta 2009. urteetako txostena onestea, gero Eusko Legebiltzarrari bidaltzeko.

Hirugarren puntua: Irisgarritasun-planak gauzatzeko eta irisgarritasuna bermatzeko obretarako emandako diru-laguntzei buruzko informazioa. (2008ko uztailaren 17ko Agindua – 172. zk EHAA- 2008-09-10)

Elkartean Arabaren ordezkariak uste du zenbait neurri hartu behar direla, adibidez diru-laguntzak eskatu ondoren esku-hartzeak egiten ez dituztenak zehatzea, eta agertzen ez direnei eta lau urteko planak ez dauzkatenek zehapen-prozedurak hastea.

Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak azaldu du erakundeek diru-laguntza eskatzeko edo ez eskatzeko askatasuna dutela. Jakinarazi duenez, diru-laguntzen aginduaren

arabera laguntza ekonomikoari uko egin ahal zaio esku-hartzea ez egitea erabakitzen bada. Horrenbestez, ezin daiteke diru-laguntzarik jaso, baldin eta diru-laguntzaren xede den esku-hartzea gauzatzen dela justifikatzen ez bada. Era berean, Lorenzo jaunak azaldu du diru-laguntzen aginduak beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna kontuan hartzen duela. Jaso ahal diren zenbatekoen muga diruz laguntzen den esku-hartzearen kostua da.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak uste du beharrezkoa dela irisgarritasuna sustatzeko erabiltzen diren partida ekonomikoak gehitzea. Esan du lau urteko planak egin beharra dagoela, irisgarritasun-araudiak exijitzen duenez. Izan ere, plan horiek aurretiazko azterlanaren bermea dira, irizpide egokiekin, esku-hartzeak bat-batean egin ez daitezten. Horrelako esku-hartzeak, sarritan, arazoak konpondu beharrean, borondate onaren erakusgarri hutsa dira. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak esan du sailak irisgarritasunaren partidetan diru-murrizketarik ez egitea ahalegin handia dela honelako une ekonomiko batean; izan ere, administrazioek beren sailen aurrekontu-partidak murriztera behartuta ikusten dute beren burua.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak bere harridura adierazi du epez kanpoko aurkezpenegatik diru-laguntzak ukatzen diren kasuen gainean, udalerriek interes falta nabarmena dutela iradokitzen baitu. Ignacio de la Puerta jaunak azpimarratu duenez, kasu horiek ez dira ohikoak, apartekoak baizik.

Laugarren puntua: 2009ko ekitaldiko diru-laguntzen aginduko (2009ko urriaren 7ko Agindua- 199. zenbakidun EHAA- 2009/10/16) deialdiko baldintzei buruzko informazioa eta ebazpena.

Ignacio de la Puerta jaunak azaldu du nola ebatzi den udalei, tokiko erakunde txikiei eta dirua irabazteko asmorik ez daukaten eta herri-onurakoak diren erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia, hiri-ingurunearen eta eraikuntzen irisgarritasuna bermatzeko irisgarritasun-planak egiteko, hobekuntza-obrak egiteko eta ekipamendua erosteko egin dena, Etxebizitza sailburuordearen 2010eko apirilaren 23ko ebazpenaren bitartez.

Bosgarren puntua: Galderak eta eskeak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Baliabide Material, Sistema Informatiko eta Antolaketa Zuzendaritzak Euskal Kontseiluko kideei jakinarazi dienez, urteotan Sailak irisgarritasuna hobetzeko erabili dituen diru-laguntza lerroei buruzko informazioa eduki dezakete.

Gobernuko sail desberdinek irisgarritasunaren gainean egin dituzten jarduerak ezagutzea garrantzitsutzat jo da, errealiter egokitutako balorazioa egin ahal izateko ikuspegi orokorra izate aldera. Halaber, EAEko Plan Orokorra ere egin beharko litzateke, irisgarritasunaren alorrean dauden beharrietara egokitutako aurrekontu-erreserba kontuan hartuta.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak Hezkuntza Sailari jakinarazi dionez, haurrak ikastetxeetara eramaten dituen plataformadun garraio irisgarriko laguntzak ezabatzeak arazo bat eragin du. Izan ere, aurreikusi den garraio-sistema, behintzat Gipuzkoan, euskarridun taxiarena da, eta minusbaliotasunen bat duen eta eskolako autobusean dabilen ikasle bakoitzeko zaindari bat behar denez, kostua handia da. Hori dela eta, beren zerbitzuak gauzatzeko ibilgailu egokituak dituzten enpresei lehentasuna eman behar zaie, halakorik ez dutenen aldean, eskolako eta eskolaz kanpoko garraioaren adjudikazioak egiteko orduan.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariaren esanetan, EuskoTrenen jarduera-eremuari dagokionez, Orioko geltokian nasetara igotzeko igogailu bakarra egotea gabezia handia da, ez baitago beste elementu finko osagarririk. Ondorioz, igogailua ez badabil arazoak sortzen dira. Ignacio de la Puerta jaunak gai hori Garraio Sailburuordetzari jakinarazteko konpromisoa hartu du.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak Osasun Sailari adierazi dio gurgildun aulkiak sartzea ahalbideratzen duten anbulantziak eduki behar direla, beren erabiltzaileei modu autonomoan garraiatzea errazteko. Osasun eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak horren berri emango dio Kontratazio Zuzendaritzari, anbulantziekiko kontratuen arduraduna berau den aldetik.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak Irisgarritasunaren Euskal Institutua sortzea komenigarria den edo Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren ahalmenak gehitu behar diren erabakitzeko eztabaidaren egoeraz galdetu du. Euskal Kontseiluko Idazkaritzak eta Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak Euskal Kontseiluko kideei zenbait azalpen eman dizkiete: egin diren urratsak, eztabaidaren ondorioei buruz Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaion txostena, egindako kontsultak eta ezindutako pertsonen kolektiboen eta Eusko Jaurlaritzako sailen erantzunak. Azaldutakoa oinarri izanik, esan dute, eskumeneñ eta aurrekontuen ondorioetarako, azterlana eskatu zitzaiola Legebiltzarrari, azaldutako ezaugarriak dituen institutu bat sortzearen inpaktuari eta artikulazioari buruzkoa, edo bestela, Euskal Kontseiluaren papera aktibatzeari eta sendotzeari buruzkoa, gaur egun dauzkan kontsulta eta partaidetzako ahalmenak handituz, ez baitira nahikoak inondik ere. Legebiltzarrak ez du eskaera hori bideratu.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak Batzorde Iraunkorraren zeregina berraktibatu nahi du, eta, adierazi duenez, aukera hori Euskal Kontseiluko kideen esku dago. Hori dela eta, bertaratutakoak horren gaineko ekimenak hartzera animatu ditu eta planteatu beharko litzatekeen gaietako bat Irisgarritasunaren Legea aldatzea dela esan du, egungo beharrizan eta lengoaiara egokitze aldera.

Ignacio de la Puerta jauna batzordean ekimenak eta lantaldeak mesedetzearen aldekoa da. Elkartean Bizkaiaren ordezkariak bezalaxe, uste du funtsezkoa dela Euskal Kontseiluko kideek auzi honetan hartzen duten papera. Halere, bere ustez ez da batere egokia Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea aldatzea, eta bere dionenez hobe da garapen-dekretua egokitzeko mekanismoak sartzea edo definitzea.

Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoaren ordezkariak bi gai planteatu ditu: batetik, irisgarritasuna arautzen duten legedien aniztasuna, eta, bestetik, horrek sor dezakeen nahasmendua, proiektuak indarreko araudira egokitu behar dituzten eta egokitzapen hori egiaztatu behar duen profesionali dagokienez. Agustín de Lorenzo jaunak erantzun du irisgarritasun-araudia aplikatzeko asmoarekin, hain zuzen ere,

Laguntza Zerbitzuak (berak gainbegiratuta) dokumentu bat egin duela, Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren deialdiari erantsitako dokumentazioarekin batera aurkeztu dena. Oinarrizko dokumentua da eta bera erreferentziatzat hartuta lan egiten jarraitu ahal eta behar da, tresna praktikoa izan dadin. Sagrario Iturrate Aholkularitza Zerbitzuko legelariak kontseiluko kideei jakinarazi die dokumentua egiteko premisa irizpiderik bermatzaileenak aukeratzea izan dela. Uste du testu bategina egitea proposatzean 68/2000 Dekretuaren egitura geureganatu beharko genukeela.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak egokia deritza egindako azterlanaren buru izan den irizpide bermatzaileena hartzeari.

Ignacio de la Puerta jaunak uste du beharrezkoa dela, dokumentuari behin betiko izaera eman aurretik, iradokizunak eta balorazioak egiteko aukera ematea. Dokumentua bukatutakoan, interesa daukaten profesionalen esku utzi ahalko litzateke.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak uste du Jardunbide Egokiaren Eskuliburu bat edukitzea interesgarria litzatekeela. Javier Regalado Aholkularitza Zerbitzuko arkitektoari galdetu dio planteatu zaizkion kontsulta teknikoek nolako bilakaera izan duten. Regalado jaunak uste du eboluzio garrantzitsua dagoela bere zerbitzuan egiten diren kontsulta teknikoetan. Esan daiteke teknikarien jakintza-maila nahiko modu nabarmenean handitu dela. Halere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan egin diren aldaketek gaur egungo egoera asko aldatuko dutela aurreikusten da, zerbitzuaren kontsulta-kopurua nabarmen handituz.

Partikularren eta kontsulta juridikoen eremuan, Sagrario Iturrate andreak jakinarazi duenez jabetza horizontalaren alorrean oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko kontsultak dira nagusi eta hainbat gai dituzte hizpide, besteak beste, erabakiak hartzeko jarraitu beharreko prozedura eta urratsak, adostasunik ez dagoenean dauden beste aukera batzuk, gatazka judizialak, elementu pribatuetan mirabetzak ezartzeko eta desjabetzeko aukera, diru-laguntzak, alternatibak, administrazio-prozedurak eta kudeaketa-izapideak, jarraitu beharreko urratsak edo auzo-gatazken

bitartekaritza. Gai horiek pizten duten interesa agerian geratu zen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2009ko azaroan Laguntza Teknikoarekin lankidetzan antolatutako jardunaldian, jabetza horizontalaren eremuan oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzkoan. Izan ere, bertaratuko zirenen aurreikuspenak gainditu egin ziren eta itzarote-zerrenda osatzen zuten pertsonen irekitako jardunaldi berri bat egiteko eskatu zen.

Elkartean Arabaren ordezkariak uste du dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeek egin dituzten diru-laguntza eskaerak oso gutxi izan direla (Arabian, bat ere ez). Horregatik, hark ondorioztatzen du diru-laguntzak dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde eta elkarten izaerara egokitu behar direla. Lokalak irisgarritasunaren araudiari egokitzea nahitaezkoa dela jakinarazi behar da gainera.

Laguntza Teknikoak, Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak, Euskal Kontseiluak edo Sailak ikuskapen-eginkizunak hartzeko aukera planteatu du Elkartean Arabaren ordezkariak eta, horren harira, Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak azpimarratu duenez, ikuskapen-ahalmenak administrazio eskudunei egozten zaizkie gaiaren arabera, dagokien jarduera-eremuan.

Ignacio de la Puerta jaunak, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkaria den aldetik, funtsezkotzat jo du Euskal Kontseiluko kideen zeregina, Euskal Kontseiluaren jarduera eta erritmoak kideek zehaztu eta sustatu behar dituztela uste baitu.

Elkartean Bizkaiaren ordezkariak beharrezkotzat jotzen du administrazio bakoitzak bere baliabideetako partida bat bideratzea beren eremuetan irisgarritasuna hobetu eta sustatzera. Izan ere, ez da espero behar Euskal Kontseiluak beste administrazio batzuen ardura diren eremuetara bideratu behar dituenik bere baliabideak. Ignacio de la Puerta jaunak argitu du Euskal Kontseiluak ez daukala aurrekontu zehatzik; Kontseiluaren urteko txostenean agertzen diren diru-laguntzak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailak irisgarritasuna hobetzeko erabiltzen dituen partidei dagozkie. Beraz, administrazioaren maila desberdinetako sailletako bakoitza da bere

aurrekontu-gordailuak egitearen arduradun zeinek bere eskumen-eremuan irisgarritasuna hobetzeko, irisgarritasunaren berezko zeharkako izaera dela-eta.

Aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Ignacio de la Puerta jaunak amaitutzat eman du Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2010. urteko osoko bilkuraren batzarra.

Ondoren, **HARTUTAKO ERABAKIAK** transkribatuko dira:

1. ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2008ko irailaren 29an egin zuen osoko bilkurako akta onestea.

2. ERABAKIA: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2008 eta 2009. urteetako txostena onestea, gero Eusko Legebiltzarrari bidaltzeko.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren bilera, 2010. urteari dagokionez, 2011ko urtarrilaren 27an egina.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2010. urteari dagokion Batzorde Iraunkorra egin du 2011ko urtarrilaren 27ko bileran.

Jarraian, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilerako akta laburbildu da eta bertan jorratutako gaiak zerrendatu dira. Akta hori Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek egiten duen hurrengo bileran onartuko da.

BERTARATUTAKOAK:

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko Burutza.
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko Idazkaritza.
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
Gizarte Ekintza Saila
Bizkaiko Foru Aldundia.

Arabako Lurraldeko Osasun Zuzendaritza
Osasun eta Kontsumo Saila
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Baliabide Material, Sistema Informatiko eta Antolaketa Zuzendaritza.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Kupoko eta Finantza Ekarpenetako Zuzendaritza.
Ekonomia eta Ogasun Saila
Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Kabinete Teknikoko Aholkularitza
Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Turismo Zuzendaritza

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Turismo Zuzendaritzako arduraduna

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Turismo Zuzendaritzako Laguntza Teknikoa

Fekoor

Eraikin Elkartuen Atala

Arabako Foru Aldundia

Elkartean Gipuzkoa

Elkartean Araba

ONCEko Lurralde Kontseilua

Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoa

EUDEL

Erretiratu eta Pentsiodunen Lurralde Federazioa

EZIN IZAN DIRA ETORRI:

EUDEL (ordezkari 1)

Gorren Elkartean Euskal Federazioa – Euskal Gorrak

Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritza

Bide, Kanal eta Portu Ingeniarien Elkargoa.

Zerbitzu Zuzendaritza
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
Gobierno Vasco – Euskó Jaurlaritza

LAGUNTZA TEKNIKOA:

Javier Regalado Herrero
Irisingarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko arkitektoa

M^a Angeles Baz Pinto
Administrazio Laguntza eta Irisingarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko
Idazkaritza

Sagrario Iturrate Eguiluz
Irisingarritasuneko Laguntza Teknikoko Zerbitzuko legelaria

2011ko urtarrilaren 27ko 10:00etan, Ignacio de la Puerta Rueda jaunak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak, Irisingarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren bilerari hasiera eman dio, 2010. urteari dagokionez, eta, bertaratu direnei eskerrak eman ondoren, deialdian proposatutako **GAI-ZERRENDA** jorratzeari ekin dio.

Lehen puntua: Aurkezpenak eta aurreiazkoak

Ignacio de la Puerta jaunak aurkezpenak egiteko gonbita egin die bertaratutakoei, ondoren gai-zerrendako gainerako gaiei buruzko sarrera labur bat egiteko.

Bigarren puntua: EAEko irisingarritasunaren balantze-prozesuaren proposamena.

Ignacio de la Puerta jaunak labur azaldu ditu Irisingarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak 2010eko ekainaren 21ean egindako bilerako eztabaidaren ondorioak, EAEko irisingarritasunaren egungo egoerari buruzko diagnostiko bat egiteko beharrezkoa dela eta, eremu honetan dauden beharrezkoak zeintzuk diren eta beharrezkoak diren koordinazio-baliabide eta -bideak zeintzuk diren zehazteko.

Halaber, azaldutakoaren arabera, Euskal Kontseiluko kideek beharrezkotzat jo dute herri-administrazioek beren jarduera-eremuetan gauzatu dituzten esku-hartzeak

baloratzea, bai eta egin diren inbertsioak eta egiteko dauden jarduera eta inbertsioak aztertzea ere, hori baita nahitaezko abiapuntua EAEn irisgarritasunaren alorreko jarduera-lerroak eta oinarritzko jarduera-irizpideak zeintzuk diren zentzuz zehazteko.

Ignacio de la Puerta jaunak bertaratutakoei adierazi die Sailak irisgarritasun-baldintzak hobetzeko duen konpromisoa. Berriz ere errepikatu du Iñaki Arriola jaunak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak, Kontseiluaren osoko bilkuraren 2010eko ekainaren 21eko bileran jakinarazitakoa, hau da, irisgarritasuna hobetzea Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren printzipio programatikoetako zati garrantzitsu batean dauden oinarrietako bat dela. Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak Sailaren ekimenaren berri eman du. Ekimen horri jarraiki, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren araudian higiezinaren irisgarritasun-baldintzei buruzko alderdiak sartuko dira, parke eraikiaren egoera ezagututa, baldintza horiek hobetzeko, laguntza emateko edo esku hartzeko politika zein den zehazte aldera; halaber, adierazitakoaren arabera, egun jendaurrean dauden beste agiri batzuk ere badaude, esate baterako, Etxebizitzaren Legearen Aurreproiektua, legezko beste neurri batzuk aurreikusten dituen, irisgarritasuneko araudian aurreikusitakoez gain.

Jarraian, Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak eta Kontseiluko Laguntza Teknikoak egindako informazio-eskaeraren agiri-proposamena irakurri da, Euskal Kontseiluko kideek hartutako konpromisoa gauzatze aldera; jakinarazi denez, agiriak Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kideei eman zitzaizkien, bileraren gai-zerrendarekin eta deialdiarekin batera.

Fekoor-en ordezkariak jakin nahi izan du ea Euskal Kontseiluak badakien herri-administrazioak Irisgarritasun Planak egiten ari diren ala ez.

Ignacio de la Puerta jaunak jakinarazi duenez, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak ezagutzen ditu EAEko udalek egin dituzten Irisgarritasun Planak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak horiek egiteko aurreikusi dituen diru-laguntza lerroetan oinarrituta. Hala ere, Ignacio de la Puerta jaunak azpimarratu duenez, ez dago daturik dagoeneko egin diren Irisgarritasun Planen garapen-mailari buruz, ez eta gainerako herri-administrazioek egindako Irisgarritasun Planen existentziari edo existentzia faltari buruz ere, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeko 13.1 artikulua horren ganean xedatzen duenaren arabera. Hori kontuan hartuta eta gaia Euskal Kontseiluaren osoko bilkuraren bileran eztabaidatuta, Kontseiluak informazioa batzeko erabakia hartu du, EAEko irisgarritasunaren egungo egoerari buruzko balantzea egiteko.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak zoriondu egin du hartutako ekimena eta beharrezkotzat jo du irisgarritasunaren alorrean egin diren eta egiteko dauden inbertsioei buruzko balorazio ekonomikoa egitea, Irisgarritasuna sustatzeko

abenduaren 4ko 20/1997 Legea onetsi zen unean egindako aurreikuspen ekonomikoekin alderatze aldera. Ignacio de la Puerta jaunak adierazi duenez, egia da lege orok berau martxan jartzeko bideragarritasuna baloratuko duen azterlan ekonomiko bat izan behar duela, baina, praktikan, legea martxan jartzean Legearen azterlan ekonomikoan aurreikusi ez diren aurrekontu-gordailuak sortzen dira. Horrenbestez, aurkeztutako informazio-eskaeren bidez, egindako inbertsioak kuantifikatu eta egiteko daudenen balorazio ekonomikoa egin nahi da, EAEko irisgarritasunaren errealitatera ahalik eta gehien egokitzen den informazioa izateko, informazioa bateratuz eta "zenbaki handiak" partida zehatzetara egokituz.

Bizkaiko Foru Aldundiak Kontseiluan duen ordezkariak zalantzati agertu da informazio-eskaerarekin batera betetzeko proposatzen diren eranskinetako galdetegien formatuari buruz. Izan ere, herri-administrazioei zaila egin dakieke denboran zehar egindako esku-hartzeei buruzko informazioa batzea, gero proposatutako formatuan sinplifikatzeko.

Agustín de Lorenzo jaunak aitortu duenez, proposamena egiteak zailtasun bat gehitu die Euskal Kontseiluko Idazkaritza eta Laguntza Teknikoari, egindako lehenengo agiri-proposamenen aurreikuspenen zehaztasun eta banakapena askoz handiagoa zelako egindako eta egin beharreko esku-hartzeei zegokienez.

Hasiera batean egindako agiriak ondo betetzeak zehaztasun-maila altua eskatzen zuen eta hori zaila zen administrazio desberdinentzat. Horrenbestez, eskaerak sinplifikatu ziren, horien kudeaketa errazteko, eta, era berean, eskatutako informazioa nahikoa izateko lortu nahi zen helburua betetze aldera. Agustín de Lorenzo jaunaren esanetan, garrantzitsua da administrazio guztiek Irisgarritasun Planak izatea, administrazio bakoitzak irisgarritasunaren alorrean duen benetako egoera ezagutzeko eta berau jorratzeko bitartekoa da eta.

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariak azpimarratutakoaren arabera, Euskal Kontseiluko osoko bilkuraren bileran adierazi zuen bezala, bere Sailak hainbat urte daramatza diru-laguntza lerroak aztertzen eta eskatutako informazioaren erantzuna errazagoa izango litzateke erantzun-agiri propioa eginda, eraikin publikoetan oztopoak ezabatzeko egindako esku-hartzeak (lehen mailakoak eta bigarren mailakoak) eta eraikin pribatu hitzartuetan gauzatutakoak bereizita.

Ignacio de la Puerta jaunak adierazi duenez, egindakoari buruzko informazioa ematez gain, egiteko dagonenari buruzkoa ere eman beharra dago. Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkariak dio baduela informazio hori eta bere Sailaren erantzunean sartuko duela.



Erretiratu eta Pentsiodunen Lurralde Federazioak Eudeleko ordezkariak jakinarazi dio udaleko irisgarritasun-planetan sartu behar direla Federazioak EAEko udalerririk desberdinetan dituen lokaletako (270 eta 280 artean) oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak, horietako askok irisgarritasun-arazo larriak jasaten dituztelako eta bertan mugikortasun-arazo larriak pertsonak daudelako, adinekoak, alegia.

Elkartean Arabaren ordezkariak egokia iruditzen zaio horrelako informazio-eskaerak aldizka egitea, irisgarritasuna hobetzeko egiten diren jardueren jarraipen erregularra gauzatzeko aldera.

Obra berriari dagokionez, Elkartean Arabaren esanetan, nahiz eta, indarreko araudiaren arabera, segurutzat jotzen den guztiek (salbuespenik gabe) irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dutela, errealitatea oso bestelakoa da eta araudia urratzen duten obra berriak gauzaten jarraitzen da. Horren harira, Elkartean Arabak adierazi du Vitoria-Gasteizko Udalak gaur egun ez daukala onetsita Irisgarritasun Plan bat, enpresa kudeatzaileak proiektu desberdinak aurkeztu dituen arren, eta obretako lizentziak ematen jarraitzen du, Irisgarritasuna sustatzeko Legeari kasu egin gabe.

Ignacio de la Puerta jauna ados dago Elkartean Arabaren ordezkariak duen irizpidearekin, informazioa jasotzeko modua sistematizatzeko komenigarritasunari dagokionez. Hala ere, kasuan kasuko herri-administrazio eskudunak edo herri-administrazioen multzoak zehaztu beharko du sistema hori, hark onetsitako baldintzetan. EAEko irisgarritasun-egoeraren balantze-prozesuaren ibilbidea urrats honekin hasten da, hain zuzen ere EAEko 251 udalerririk eta Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Sail desberdinek Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren informazio-eskaerari bide ematearekin, eta, horrenbestez, prozesu honetan herri-administrazio guztiek erantzutea ezinbestekoa da, horren arabera baloratu eta adostuko baitira (zeharka) beharrezkoak diren neurriak.

Erretiratu eta Pentsiodunen Lurralde Federazioaren ordezkariak ezinbestekotzat jo du herri-administrazio desberdinen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren, EAEko irisgarritasunaren arazoari erantzun koherentea emateko; Federazioak Jabe Erkidego baten esperientzia du mintzagai. Izan ere, igogailu bat instalatzerakoan, beren ustez koordinazio falta antzeman zen herri-administrazioko sail jarduleen artean.

Agustín de Lorenzo jaunak zehaztu duenez, hasierako balantzea sektore publikoak gauzatutako jardueri dagokionez aurreikusi da. Sektore pribatuan gauzatutako jardueren harira, kasuan kasu horretarako eskumena duen herri-administrazioak ikuskatu beharko dituela ulertzen da; hala ere, De Lorenzo jaunak iradoki duenez, Batzorde Iraunkorrak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko

bilkurara bidal lezake Eustaten eskaera, EAEko Eraikinen eta Lokalen Errolda egitean horietako irisgarritasun-baldintzen gaineko informazioa sartzeari buruzkoa, bertan onesteko.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak zalantzan jarri du irisgarritasun-baldintzen balorazioa. Beren esperientziatik abiatuta, sarritan geratu dira agerian irisgarri gisa baloratutako lokalek irisgarritasun-kontuetan zituzten gabeziak.

Eztabaida amaituta, Batzorde Iraunkorreko kideek honakoa erabaki dute: proposatutako dokumentazioa baliozkotzea eta EAEko udalei, Eudeli, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinei eta hiru Foru Aldundiei bidaltzea, beren sailei dokumentazioaren berri emateko eta horiek beren zuzendaritzei, berau betetzeko eta ondoren Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko Burutzara itzultzeko, xedatutako epean.

Halaber, Euskal Kontseiluko osoko bilkurara igorriko da Eustaten eskaera, EAEko Eraikin eta Lokalen Errolda egitean horietako irisgarritasun-baldintzei buruzko informazioa sartzeari buruzkoa, bertan onar dadin.

ERABAKIA: EAEko irisgarritasunaren balantze-prozesua hasteko egindako dokumentazioa (informazio-eskaera eta eranskinak) onestea.

ERABAKIA: Onetsitako dokumentazioa EAEko udalei, Eudeli, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinei eta hiru Foru Aldundiei bidaltzea, horren berri eman diezaioten beren sailei eta horiek beren zuzendaritzei, berau betetzeko eta gero, 2011ko maiatzaren 15a baino lehen, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Burutzara bidaltzeko.

ERABAKIA: Eustaten eskaera, EAEko Eraikin eta Lokalen Erroldan irisgarritasun-baldintzak sartzeari buruzkoa, Euskal Kontseiluko osoko bilkurara helaraztea, bertan onar dadin.

Hirugarren puntua: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko irailaren 8ko Aginduari buruzko informazioa; horren bidez, udal eta tokiko erakunde txikientzat 2010. ekitaldiko diru-laguntzak arautu eta deitzen dira, irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hiri-inguruan eta eraikuntzetan irisgarritasuna bermatzen duten ekipamenduak erosi eta hobekuntza-obrak gauzatzeko (185. zenbakidun EHAA – 2010/09/24).

Ignacio de la Puerta jaunak jakinarazitakoaren arabera, 2010eko ekitaldiko diru-laguntzen deialdian aurreikusitako aurrekontu-hornidura 2.160.000 eurokoa da. Kopuru horretatik 162.000 euro 2010. urteari dagozkio eta 1.998.000 euro 2011ri.

Deialdi honen xedea udalek eta tokiko erakunde txikiek irisgarritasun-planak egin eta eguneratzea eta hiri-inguru eta eraikuntzetan irisgarritasuna bermatuko duten ekipamenduak erosi eta hobekuntza-obra egitea da.

Ignacio de la Puerta jaunak dio 93 udalerrik egin dutela diru-laguntzaren eskaera: 41 Bizkaian, 16 Araban eta 36 Gipuzkoan.

Deialdiaren ebazpena argitaratzeke dago eta ebatzitako kopuruak 997.251 eurokoak dira Bizkaian, 113.686 eurokoak Araban eta 1.049.062 eurokoak Gipuzkoan.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariak iragarri duenez, Sailak 2011ko ekitaldiko diru-laguntzen hurrengo deialdiaren tramitazioa aurreratu nahi du, Agindua dagokion urterokora egokitze aldera; hori guztia, dagokion aurrekontu-partida egokitzen bada eta egungo deialdiko baldintzei eusten bazaie.

Fekoor-eko ordezkariak honakoa planteatu du: ea irisgarritasuna sustatzeko aurrekontu-partida nahikotzat jotzen duen Sailak. Ignacio de la Puerta jaunak erantzun duenez, deialdiak ez duenez lehiaketa-izaerarik, udalerrri guztiek parte har dezakete bertan, eta, ondorioz, partida eskatzaile guztien artean banatu behar da. Sailak laguntza udalerrri guztien esku egoteko asmoz diseinatu du Agindua, udalerrri gutxiagorentzat partida handiagoak esleitu beharrean.

Fekoor-eko ordezkariak onartezina deritzo Aginduan eskaileren eta malda mekanikoen diru-laguntza aurreikusteari, taldeak instalazio horren guztiz kontra daudelako, ez baitute uste irisgarritasun-arazoak konpontzeko irtenbide egokia denik. Ignacio de la Puerta jaunak Aginduaren aurreikuspenaren berri eman du. Izan ere, eskaileren eta malda mekanikoen instalazioan esku hartzea zigortzen duten baremazio-koefiziente batzuk ezartzen ditu igogailua instalatzeari dagokionez; Ignacio de la Puerta jaunak kontuan hartu ditu egindako oharrak eta, azpimarratutakoaren arabera, nahiz eta eskailera mekanikoek ez duten pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen, nabarmen hobetzen dute herritar-portzentaje altu baten mugikortasuna. Hori izan da, hain zuzen ere, Sailaren balorazioa. Edonola ere, horretarako eskumena duen Administrazioak erabaki beharko du esku-hartze egokia zein den eta, zalantzarik gabe, EAEko orografiaren ezaugarriak aintzat hartuta, kasu batzuetan hobekuntza esku-hartze bat beharko da, irisgarritasuna ehuneko ehun bermatzen duen esku-hartze bat bideraezina delako. Kasu horietan, administrazio eskudunak aukeratzen duen esku-hartzea egokiena izango dela suposatzen da, irisgarritasunaren gaineko indarreko araudiari jarraiki, eta esku-hartze horri eman ahalko zaio diru-laguntza, deialdian aurreikusitako baremazio-koefizientearen arabera.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak ez zaio egokia iruditzen eskaileren eta malda mekanikoen instalazioa sartzea irisgarritasuna sustatzeko diru-laguntzen Aginduan, baina ez du baztertzeko diru-laguntzen beste deialdi batean sartzeko aukera.

EUDEL-en ordezkariak uste du eskailera eta malda mekanikoen irisgarritasun-baldintzak hobetzen dituztela biztanleria-talde zabal batentzat, eta, horrek, bere aburuz, irisgarritasuna sustatzea dakar.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak adierazi duenez, kasu askotan erabakitzen da eskailera edo malda mekanikoa jartzea igogailu bat instalatzea bideragarria bada ere, eta hori onartezina da, lehenengo aukera horrek ez duelako irisgarritasun osoa bermatzen -beraz, Fekooreko ordezkariak dio igotzen soilik uzten duela, eta ez jaisten-, bigarren irtenbideak bermatzen duen bitartean.

Laugarren puntua: Irisgarritasun turistikoaren euskal ereduaren aurkezpena

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritzak Sailak garatu duen proiektu pilotuaren ildo nagusiak aurkeztu ditu eta horren arabera 547 establezimendu diagnostikatu dira eta 422 irisgarritasun-zigilu entregatu dira.

Garrantzitsua iruditzen zaio egungoa bezalako krisi garaietan inguru turistikoaren irisgarritasunari balioa ematea, eta ez soilik produktu esportagarriaren eredu gisa, baizik eta pertsona guztiei ematen dien balioagatik.

Turismo Zuzendaritzaren arduraduna den teknikariak azaldu duenez, Sailak bere establezimenduetako irisgarritasun-baldintzen benetako balorazioa edukitzeko beharria zuten, eta, beraz, martxan jarritako proiektuaren lehenengo helburua informazio ziurtatua edukitzea zen.

Errealitatean, eskaintza eskuragarri zehatzaren falta nabari zen.

Zuzendaritzako arduradunaren esanetan, antzeman zen errealitatea kontuan hartuta, 2005. urtean Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak EAEko irisgarritasun turistikoa jorratzea erabaki zuten, jarraian Zuzendaritza honetako Laguntza Teknikoak azalduko duen eta honako faseak aurreikusten dituen programarekin:

1. Irisgarritasunaren erreferentia zehaztea, establezimendu-mota desberdinen arabera jarduteko eta ulertzeko jarraibide sinpleak ezarriz.
2. Establezimenduen irisgarritasun-maila ezagutzea.
3. Establezimenduen irisgarritasuna hobetzea.



4. Informazioa ohiko sustapen-bideetan sartzea, informazio hori pertsona orori hedatu dakion eta aniztasun funtzional mota desberdinen beharrianak kontuan hartzen dituzten pakete turistikoa zehatzak sor daitezzen.

Hori horrela, hasteko irisgarritasun turistikoa eredu sortzen da, egun bost sektore aztertzen dituena: ostatua (hotelak, pentsioak, apartamentuak, landa-etxeak eta kanpinak), jatetxeak (jaketxeak, bodegak, sagardotegiak eta txakolindegia), Itourbask sarearen parte diren turismo-bulegoak, interpretazio-zentroak eta taberna-kafetegiak.

Ostatuen sektorean, hotel, pentsio, apartamendu, turismo-etxe eta kanpinen artean bereizteko arazoia zera da, bakoitzak ezaugarri desberdinak dituzenez, beharrezkoa da ebaluazioa zehaztea, establezimendu baten kudeatzaile bakoitzak bere zerbitzu-katearen ezaugarriak zeintzuk diren ezagutu dezan, pertsona oroentzat kalitatezko zerbitzua emate aldera.

Azaldutako ereduak bost aniztasun funtzional mota bereizten ditu: fisikoa, ikusizkoa, entzutezkoa, intelektuala eta organikoa.

Programak establezimendu turistikoa egokitzapen-mailaren neurketa aztertzen du aniztasun funtzional mota bakoitzerako, hiru maila eta koloretan: irisgarria (kolore berdea), nahiko irisgarri-praktikagarria (anbarra) eta ez irisgarria (gorria).

Erabiltzaile izan daitezkeen pertsona guztiei informazio objektiboa eman nahi zaie eta komunikazio eta hedapenerako euskarri egokitutako eredu erraztu nahi da, horien mugak kontuan hartuta. Diseinatutako laburpen-fitxa erakutsi da. Bertan, establezimendu eta aniztasun funtzional mota bakoitzean irisgarritasun-baldintzei dagokienez establezimenduko zerbitzu-kate osoak betetzen dituen baldintzak zeintzuk diren azaldu da.

Zerbitzu-kateko ikur bakoitzak zerbitzu ebaluatua informazio objektiboa ematen duen, ebaluatzen den irizpidea labur azaltzen duen eta irisgarritasun-maila neurtzen duen fitxa bat dakar. Azken hori, irisgarritasun-maila alegia, bederatzi mailatan aurreikusitako graduazioaren arabera neurtzen da: 1, 2 eta 3 mailak "irisgarritasunik gabeak" dira; 4, 5 eta 6 mailak "praktikagarriak" eta 7, 8 eta 9 mailak "irisgarriak".

Araudia betez gero, 7. maila lortzen da eta hortik gorako ereduak kalitatezko edo bikaintasunezko osagai bat sartzen dute, araudian aurreikusitakoaz harago doaz eta.

Programak irisgarritasun-zigilua diseinatu eta eman nahi die aniztasun funtzional mota batean (gutxienez) *irisgarria* kalifikazio duten establezimenduei.



Irisgarritasun-eredua zehaztutakoan, programaren bigarren fasea azaldu da, erakartzeko zereginarekin hasten dena. Bertan, Euskalitek parte hartu du, programa bikaintasun eta kalitatearekin identifikatu dadin, eta ez disuasiozkoak izan daitezkeen alderdi ortopedikoekin; Euskaliten dauden jardunbide onen ereduen bidezko erakarpena jorratu da.

Programak prestakuntza teorikoaren eta praktikoaren atal bat dauka. Aditu batek diagnostiko bat egiten du, establezimenduaren egungo egoerari buruzko txostena egiten da, irizpide bakoitza ebaluatuz, eta aniztasun funtzional mota bakoitzerako hobekuntza-arloak eta establezimenduetan neurriak hartzeko orduan dauden lehenetasunak identifikatzen dira.

Hobekuntza-neurri zehatzak hartzeko, Sailak babes teknikorako zerbitzua eta euskarri ekonomikoa eman dizkio programari, laguntzen agindu baten bidez.

Hobekuntzako esku-hartzeak egin ondoren, establezimenduaren diagnostiko berria egin da.

2010. urtean zehar, produktu turistikoa sortzeko, sustapena hasteko eta eremuak hedatzeko faseak estaliko dituen prozesua hasi da.

Horrenbestez, produktua sortzeko bost jomuga aukeratu dira, hiru euskal hiriburuak, Zarautz eta Arabako Errioxa (Eltziego, Bastida eta Guardia); eskaintza sortzeko ez da nahikoa programan dauden establezimendu turistikoak edukitzea, eta, horregatik, pakete turistikoa egiteko orduan kontuan hartu dira, batetik, programan sartutako baliabideak (adibidez, Donostiako pakete turistikoan bost establezimendu edo ostatu, hamar jatetxe, hamar taberna/kafetegi, turismo-bulegoa eta bi interpretazio-zentro sartzen dira), eta, bestetik, programan agertzen ez diren baina interes turistikoa duten beste baliabide batzuk. Sektore horietan (hondartzak, museoak, dendak, interes-puntuak, hiri-ibilbideak, garraio publikoa...), hain zuzen ere, ez dago eredurik, ez programarik, informazio nahikoa lortzeko eta pakete turistikoetan sartzeko diagnostiko orokorra egitea erabaki duenik.

Proba pilotu honetan udalen lankidetzak eduki da eta Viajes Eroski delakoak hasi du produktuen osaera. Ekimena hiru euskal hiriburuetan aurkeztu da, prentsa-aurrekoen bidez, zigiluak entregatu dira eta liburuxka amaitu da, merkaturatzen hasteko. 2011ko ekaina aurreikusten da proba pilotu honen ondorioak edukitzeko data gisa.

Sustapenari dagokionez, Viajes Eroskiren merkataritza-sare nazionalaz gain, informazio eskuragarriaren berri eman zaie jomugako agente koordinatzaileei eta informazioa Zuzendaritzaren web orrian jarri da, nahiz eta apirilera arte bilatzaileak

ez duen utziko aniztasun funtzional motaren arabera kontsultarik egiten. Egun, web gunean dauden datuak establezimenduei buruzkoak dira.

Sailari garrantzitsua iruditzen zaio ekimena beste eremu batzuetara zabaltzea, pertsona orok establezimendu turistikoek eskaintzez gain, hiri osoa aurkezten duen eskaintza bat izan dezan.

Turismoko zuzendariak aurkezpenari amaiera eman dio. Bere esanetan, azaldutako irisgarritasun-ereduaren etorkizunerako erronkei esker zeharka landuko da programa, estrategiarik egokienak zehaztuko dira proba pilotuko ondorioen arabera, Euskadin produktu eskuragarri gisa lan egiten jarraituko da eta pertsona ororentzako eskaintzak sartuko dira Basquetour turismoaren euskal agentziak garatutako marketin-planaren ondoriozko produktu guztietan.

ONCEren ordezkariak ikurren kontrastearen gaineko interesa erakutsi du. Izan ere, aurkeztutakoek arazoak sortzen dituzte ordezkatzan duten taldean eta halaxe adierazi zen ONCEri eredia aurkeztu zitzaionean.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak bere desadostasuna agertu du gai berdinean. Azaldutakoaren arabera, irisgarritasun-eredua erakutsi zitzaienean kontrasteak era unibertsalean zehaztutako irizpideen arabera izatea komeni zela jakinarazi zen; halaber, talde desberdinek egindako gainerako iradokizun eta ekarpenak kontuan hartu diren jakin nahi du.

Turismo Zuzendaritzako laguntza teknikoak jakinarazi duenez, eredian semaforoaren koloreak erabili dira, interpretazio erraza ematen dutelako eta, era berean, erabilitako patroieta jarri den arreta azpimarratu du.

Turismoko zuzendariak eta Zuzendaritzako teknikari arduradunak, programaren pilotu-izaerari jarraiki, taldeek planteatutako gaia baloratzeko konpromisoa hartu dute.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak uste du egun zigilu, bandera eta egiaztapenen aniztasuna hain dela handia, ezen nahasmendua sortzen baitu taldeengan, benetan behar dena informazio argia den arren.

Turismo Zuzendaritzako laguntza teknikoak adierazi duenez, egun estandarizazioa falta da eta araudi-aniztasunak ez du egoera laguntzen. Elkartean Gipuzkoaren ordezkariaren arabera, araudi-aniztasunak ez du zerikusirik planteatutako gaiarekin; arazoa da ez dela sinbologia bera erabiltzen kasu bakoitzean dauden irisgarritasun-baldintzen berri emateko.

Turismo Zuzendaritzako teknikari arduradunak dio programa ez dagoela itxita, eta, beraz, taldeek egindako ekarpen desberdinak baloratu daitezkeela.

Agustín de Lorenzo jaunaren esanetan, Turismo Sailak establezimendu berriei, obrak egiten dituztenei eta titulartasuna aldatzen dutenei eskatu liezaieke irisgarritasun-baldintza jakin batzuk betetzeko. Izan ere, ez dauka inolako zentzurik zaharberrikuntza-obrak egiten dituen establezimendu batek bere instalazioetako irisgarritasunari kasurik ez egiteak.

Zuzendaritzaren arduradunak jakinarazitakoari jarraiki, establezimenduak irekitzeko lizentzia emateko prozedurak dio aurkezten diren espediente guztiek irisgarritasunaren araudia betetzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria izan behar dutela arkitektoaren eskutik, tramitatuak izateko. Zaharberrikuntza-obra garrantzitsuetan, udalaren obretako lizentzia aurkeztu behar da. Era berean, Sailak emandako lizentziek izaera mugagabea dute eta ez dute aldizkako berrikuspenik jasaten.

Agustín de Lorenzo jaunak uste du egokia litzatekeela Turismo Sailak araudi bat garatzea, establezimendu turistikoetako irisgarritasun-baldintzak egokitzeko eskatzen duena, bai egokitzapen-aldi bat ezarriz, beste gai batzuetan egin den bezala (isolamendu akustikoa), bai establezimenduetan zaharberrikuntza-obrak egiten direnean. Izan ere, bere esperientzian egiaztatu ahal izan du zaharberrikuntza garrantzitsu bat egiten den kasuetan irisgarritasunari buruzko alderdiak kanpoan geratu direla.

Agustín de Lorenzo jaunak eskerrak eman dizkio Turismo Sailari irisgarritasuna hobetzearen aldeko urrats bat emateagatik eta herri-administrazioetako gainerako sailek ere prestatutasun bera izatea komeni dela adierazi du.

Fekoor-eko ordezkariak balorazio positiboa egin dio Sailaren ekimenari baina zalantzati agertu da aniztasun funtzional mota batean *irisgarritasun* kalifikazioa duten establezimenduei zigilua emateari dagokionez.

Turismo Zuzendaritzako laguntza teknikoak azaldu duenez, programaren xedea irisgarritasuna hobetzea eta establezimenduetako errealitateari buruzko informazio zehatz eta objektiboa ematea da, eta, horren harira, zigilua pizgarri izan dakieke sektoreko enpresarentzat, eta, era berean, bestela lortuko ez litzatekeen informazioa ezagutzeko aukera ematen du. Fekoor-eko ordezkariak positibotzat jo du informazioa ematea, baina ez zaio egokia iruditzen aitorten bat ematea establezimenduaren irisgarritasuna ez bada osoa eta ez bada EAEtik kanpo aitortuko, hain zuzen ere ez dituelako establezimendu irisgarri bat definitzen duten estandarrak betetzen.

Turismoko zuzendariak dio hausnarketa ugari egin direla ereduaren zehazteko, baina prozesua egungo errealitateak abiatuta hasi behar zela eta errealitatea islatzen dena dela, zehazki. Helburua egungo irisgarritasun-baldintzak hobetzeko mekanismoak ezartzea da.

Bosgarren puntua: 68/2000 Dekretua aldatzeko aukerari edo aukera ezari buruzko eztabaida, eta, hala badagokio, aldatu daitezkeen alderdiak.

Ignacio de la Puerta jaunak jakinarazitakoaren arabera, puntu hau sartu da gai-zerrendan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kideak kezkatu egon zirelako osoko bilkuraren azken bileran. Hori horrela, 68/2000 Dekretua aldatzeko aukerari edo aukera ezari buruz eztabaidatzea erabaki zen, onarpenetik igarotako denboran oinarrituta.

Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak uste du 68/2000 Dekretua aldatzeko edo ez aldatzeko buruzko eztabaidari ekin baino lehen beste alderdi garrantzitsuago bat jorratu behar dela, hain zuzen ere, estatuko araudi berriak irisgarritasunaren gainean indarrean dagoen euskal araudian duen interferentzia.

Ignacio de la Puerta jaunak estatuko araudiaren oinarriko izaeraren berri eman du eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariari bidali dizkio araudiak erkatzen dituen eta aplikatu beharreko irizpideen proposamena dakarren lan-agiria, Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Idazkaritzak eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Laguntza Teknikoak egindakoa. Agiri hori Kontseiluko kideei eman zitzaizkien Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak egindako azken bilera baino lehen, 2010eko ekainean.

Saileko Laguntza Teknikoko letradua den Sagrario Iturrate andreak Arabako Foru Aldundiko ordezkariari jakinarazi dionez, lan-agiria egiteko hartu diren irizpide zuzentzaileak oinarriko araudiarekiko errespetua eta kasuan kasu bermatzaileagoa den araudiaren lehentasunezko aplikazioa izan dira. Oinarriko lan-agiria Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurako kideen esku jarri zen, hark egokitzen jotzen zituen ekarpenak egingo zituelako konpromisoarekin, hori guztia indarreko araudia aplikatzeko irizpideak ezartze aldera. 68/2000 Dekretuak oinarriko araudiaren aurreikuspenak sartu beharko ditu bermatzaileago diren alderdietan eta Dekretuak aurreikusten ez dituenetan.

Agustín de Lorenzo jaunak azpimarratu duenez, prozesu hau martxan jartzean sortu zen, hain zuzen ere, 68/2000 Dekretua aldatzeko aukera edo aukera eza planteatzeko zalantza.



Fekoor-en ordezkariak dio dagoeneko indarrean dauden araudi-aldaketekin batera aurreikus daitezkeen beste aldaketa batzuk ere aztertu behar direla, Jabetza Horizontaleko Legearena edo Kode Zibilarena adibidez.

Sagrario Iturrate andreak adierazi duenez, nahiz eta aurreikusitako aldaketek (gauzatzen direnean) oztopo arkitektonikoak ezabatzea sustatuko duten, dirudienez eragin handiagoa izango dute kasuan kasu baimenak eta lizentziak emateko eskumena duten herri-administrazioek urbanizazioak eta eraikuntzak berritu, handitu edo aldatzeko obrei buruzko 68/2000 Dekretuko V. eranskinari ematen dioten aplikazioan; eragin horrek lotura handiagoa izango du araudiaren aplikazioarekin, araudiarekin berarekin baino, bateraezina izango baita (inkoherentea delako) araudi batzuek guztiz sustatzea irisgarritasun-baldintzen hobekuntza eta gaia arautzen duten araudian aurreikusitako irisgarritasun-irizpideak, lasaitasun handiagoz aplikatzeari dagokionez, praktikotasunaren irizpideetan aurreikusitako baldintzetan edo betearazpenaren salbuespenerako errekurtsora joz.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariak uste du ikuskapen-talde bat egon beharko litzatekeela irisgarritasun-araudiaren arau-hausteak zeintzuk diren jasotzeko eta horien gainean jarduteko; nabarmendu denez, harrizkoa da oraintsu onartu den Tabakoaren Legea indarrean jartzean ikuskapen-funtzio ugari egin direla eta irisgarritasunaren araudian, aldiz, indarrean urteak daramatzan arren, betearazpena zaintzen duen ikuskapen-talderik ez egotea.

Ignacio de la Puerta jaunak azpimarratu duenez, irisgarritasunaren araudiak berak baimenak eta lizentziak emateko ardura duten herri-administrazioei egotzen die irisgarritasunaren araudia betetzen dela egiaztatzeko erantzukizuna. Araudiak ez du aurreikusten irisgarritasunaren alorrean gauzatutako jardueretarako ikuskapen-talde bat sortu behar denik; erabaki hori eremu bakoitzean jarduten duen administrazioak hartu behar duela ulertzen da. Nolanahi ere, herritar orok jo dezake administrazioko bidera, edota, hala badagokio, bide jurisdikzionalera, egokitzen jotzen dituen erreklamazioak planteatzeko.

Ignacio de la Puerta jaunak dio 68/2000 Dekretuaren aplikazioak denboran zehar izan duen ibilbidea erreferente egokia eta nahikoa dela aldaketak sartu behar diren ala ez baloratzeko, eta hala badagokio, beharrezkoak zeintzuk diren baloratzeko.

Agustín de Lorenzo jaunaren esanetan, kasu batzuetan irisgarritasun-arazoak ez dira konpontzen esku-hartzeak gauzatzea benetan ezinezkoa delako (egiturako arazoak edo muga orografikoak medio), baina beste kasu batzuetan esku-hartzeak gauzatzean inguru orokorra kontuan hartuko balitz, irtenbide egokiak bilatu ahalko lirateke. Horren harira, De Lorenzo jaunak dio interesgarria dela Etxebizitzaren Lege

Aurreproiektuan aurreikusitako trataera, eraikitako hiriaren gaineko esku-hartzean eragina duenez gero.

Ignacio de la Puerta jaunak dioenez, hiri eraikian esku hartzeari buruzko kapituluan, Etxebizitzaren Lege Aurreproiektuak jabari publikoko espazioak okupatzeko ahalmena aurreikusten du, egiten diren esku-hartzeen helburua irisgarritasuna, bideragarritasuna edo eraginkortasun energetikoa bermatzea bada.

Ignacio de la Puerta jaunak ekarpen eta proposamen egokiak egiteko gonbita egin die bertaratutakoei, kontseiluaren osoko bilkuraren bileran hartu zuten konpromisoaren harira; Batzorde Iraunkorreko kideen ekarpen edo proposamenak falta direnez, Ignacio de la Puerta jaunak Batzordeko kideei eskaera bat zuzentzea proposatu du, beren ekarpen edo proposamen dokumentatuak Batzorde Iraunkorreko Burutzara bidal ditzaten eta 68/2000 Dekretua aldatzeko edo ez aldatzeko aukera baloratuko duen, eta, hala badagokio, aldatu beharreko alderdiak zehaztuko dituen lan-talderako izendatzen duten pertsona nor den jakinaraz dezaten.

ERABAKIA: Batzorde Iraunkorreko Burutzak Batzordeko kideei eskatuko die egokitzen jotzen dituzten ekarpen edo proposamen dokumentatuak egiteko eta 68/2000 Dekretua aldatzeko aukera baloratuko duen, eta, hala badagokio, aldatu beharreko alderdiak zehaztuko dituen lan-talderako izendatutako pertsona zein den jakinarazteko.

Seigarren puntua: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eskumenak.

Ignacio de la Puerta jaunaren esanetan, Batzorde Iraunkorraren gai-zerrendan sartu da puntu hau, orain arte Eusko Legebiltzarrak ez diolako erantzunik eman Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak bideratutako eskaerari, 2009ko martxoaren 21ko idazkiaren arabera.

Sagrario Iturrate andreak Batzorde Iraunkorreko kideei adierazi dienez, 2009ko martxoaren 31ko aipatu idazkian, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak Eusko Legebiltzarrari jakinarazi zizkion legez Irisgarritasunaren Euskal Institutua sortzeko egokitasunari buruzko eztabaidaren ondorioak, irisgarritasunaren politika publikoaren kudeaketa arautzeko aukera, hala badagokio, egokiak diren organoak sortzearen bidez edo daudenak birformulatzearen bidez, egindako kontsultak eta minusbaliotasunen bat duten pertsonen taldeek eta Gobernuako Sailek emandako erantzunak. Jakinarazitakoan oinarrituta, Euskal Kontseiluaren osoko bilkurak Legebiltzarrari eskatu dio zehaztutakoa bezalako institutu bat sortzearen eragina eta osaera aztertzeko, eskumen eta aurrekontuen ondorioetarako, edo, hala badagokio, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal

Kontseiluaren zeregina aktibatu eta indartzeko aukera baloratzeko, eta, Irigarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitakoa garatuz, egun aginduta dituzten eta argi eta garbi nahikoak ez diren eskumenak (kontsulta eta partaidetzakoak) hedatzeko.

Ignacio de la Puerta jaunak bertaratuei planteatu die Eusko Legebiltzarrari Euskal Kontseiluko osoko bilkurak bideratutako eskaera tramitzatzeko eskatzeko aukera. Batzorde Iraunkorreko kideei egokia irudi zaie itzarotea eta eskaera Legebiltzarrera ez bideratzea.

Zazpigarren puntua: Entidad Pública Empresarial de Vivienda- Donostiako Etxegintzaren eskaera, gazteentzako apartamenduak kudeatzeari buruzkoa.

Irigarritasun turistikoaren euskal eredua (gai-zerrendako bigarren puntua) azaldu ondoren, honako puntu hau jorratu da, Eudelen ordezkariak eskatuta, agenda-kontuak direla eta bileratik irten behar duelako.

Ignacio de la Puerta jaunak Entidad Pública Empresarial de Vivienda- Donostiako Etxegintzak bideratutako eskaera irakurri du. Agiri hori Batzorde Iraunkorreko kideei eman zitzaion, Kontseilu Batzordearen bilerarako deialdiarekin batera.

Honakoa galdetu zaio Euskal Kontseiluari: ea 31 urtetik beherako pertsoneri adjudikatu dakieken, alokairu-araubidean, minusbaliotasundun pertsoneri erreserbatuta dauden baina hutsik dauden ostatuak, berau okupatzeko aurreikusitako betekizun orokorrak bete arren mugikortasun murriztua ez badute.

Ignacio de la Puerta jaunak adierazi duenez, eskaera hori sartu da Batzorde Iraunkorreko gai-zerrendan, batetik Kontseiluari zuzentzen zaizkion eskaera guztiak bideratu eta erantzun behar direlako, eta, bestetik, horri esker erreserbatuta dagoen baina eskari faltagatik okupatu ez den etxebizitza-parkeari buruzko arazoa jorratu ahalko delako, 68/2000 Dekretua aldatzeko aukerari edo aukera ezari buruzko eztabaidan sartu ahal den alderdi gisa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariaren ustez, planteatutako gaia ez da Euskal Kontseiluari egotzitako eskumenen eremuan sartzen eta kasu horietan jardutea administrazio-agintarien eskumenekoa dela ulertzen du.

Sagrario Iturrate andrea ados dago Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariarekin. Bere esanetan ere, eskaera horri erantzuna ematea ez da Batzorde Iraunkorraren eta Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko osoko bilkuraren eskumena, eta, horren harira, Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

jakinaren gainean jarri beharko da. Hala ere, horren azpian dagoen gaiari buruz eztabaidatzea komeni dela uste du. Izan ere, Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/97 Legeak erreserbatutako etxebizitza-izaera galtzeko aukera aurreikusten duen arren, ez du horretarako prozedurarik ezartzen. Horren ondoriozko errealitatea Batzordeko kide guztiek ezagutu beharreko kontua da.

Erretiratu eta Pentsiodunen Lurralde Federazioaren ustez, Etxebizitza Saila beharbada ez da horrelako gaiak jorrazteko leku egokiena eta Donostiako Udala Gizarte Elkarrizketarako Foroari zuzendu beharko litzaioke, hirugarren sektoreko talde eta elkarteak batzen dituelako eta taldean interesdunen bat egon litekeelako.

Agustín de Lorenzo jaunak aipatu eztabaidagaien araudia garatuta ez dagoenez aplikatzen ari diren prozeduraren berri eman du. Horren harira, etxebizitza babestuaren eremuan barne-gutun bidez ezarri zen honakoa: Etxebideko zerrendetan izena emandako hautagaiak agortzen zirenean etxebizitzak hutsik jarraitzen bazuen, Sailari eskaini beharko zitzaion etxebizitza hori. Sustapen libreko eremuan prozedura bat ezarri zen, etxebizitza erreserbatuen eta beren ezaugarrien publikitatea bermatzeko eta etxebizitzaren erreserbaz jabetu ahal diren minusbaliotasundun pertsonen taldeari etxebizitza horien berri emateko; informazioa hedatu ondoren, eta horri erantzuteko denbora bermatuz eta era berean sustapeneko gainerako etxebizitzak ebazteko aukera ere eskainiz, erreserbatutako etxebizitzak hutsik gelditzen badira eskaria falta delako, egokitza jo zen Etxebizitza Zuzendaritzak etxebizitza erreserbatua askatzeko ziurtagiria egitea, aurreikusitako urratsak betetzen zirela egiaztatu ondoren, etxebizitza erreserbatua askatzeko prozedurari –irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitako askatasuna– formaltasun apur bat emateko eta, horrela, trafiko juridikoan segurtasun falta ezabatzeko.

Elkartean Gipuzkoaren ordezkariari onartezina iruditzen zaio erreserbatutako etxebizitza babestua askatzea eta Etxebidek etxebizitza erreserbatua eskatzen duten pertsonen zerrendak izan behar dituela dio. Ignacio de la Puerta jaunaren esanetan, Lurralde Ordezkaritzaren erantzuna ez da zerrendak ez emateko nahia bezala ulertu behar; kontsulta egin ondoren, ez dago ostatuen adjudikaziodun izateko betekizunak betetzen dituen pertsonarik eta horregatik ezin da zerrenda eman.

Agustín de Lorenzo jaunak dio eztabaida honen gaia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren eskumena izan litekeela. Horren harira, Sail horrek Kontseiluan duen ordezkariak adierazi duenez, eskumena Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarena da, nahiz eta bere sailak ere lotura duen Euskadiko herri eta hirietako gunerik zaharretan bizi diren pertsonen jasaten dituzten irisgarritasun- eta mugikortasun-arazoekin eta pertsona horientzat etxebizitza irisgarriak eskuratu ahal izateak eskainiko lukeen irtenbidearekin; iradokitakoaren arabera, beharbada arazoa

etxebizitza babestuak lortzeko aurreikusitako egungo baldintzetan dago, erreserbatutako etxebizitzaren eskari faltan baino gehiago.

Eudelen ordezkariak eskerrak eman dizkie Batzorde Iraunkorreko kideei gainerrenda honetan aztertuko diren kontuen ordena aldatzeagatik. Gaineratu duenez, ez du gai honi buruzko eztabaidan parte hartu, ezin duelako Donostiako Udaleko zinegotzia dela ahaztu, nahiz eta Eudelen ordezkarietan agertu den bilerara.

ERABAKIA: Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintzari jakinaraziko zaio planteatutako gaia ez dela Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari egotzitako eskumenen eremukoa.

Zortzigarren puntua: Eskakerak eta galderak.

Ez dago galderarik ez eskaerarik.

Aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Ignacio de la Puerta jaunak amaitutzat eman du Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2010. urteari buruzko Batzorde Iraunkorraren batzarra, 2011ko urtarrilaren 27an egindakoa.

Ondoren, **HARTUTAKO ERABAKIAK** transkribatuko dira:

1. **ERABAKIA:** EAEko irisgarritasunaren balantze-prozesua hasteko egindako dokumentazioa (informazio-eskaera eta eranskinak) onestea.

2. **ERABAKIA:** Onetsitako dokumentazioa EAEko udalei, Eudeli, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinei eta hiru Foru Aldundiei bidaltzea, horren berri eman diezaioten beren sailei eta horiek beren zuzendaritzeari, berau betetzeko eta gero, 2011ko maiatzaren 15a baino lehen, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko Burutzara bidaltzeko.

3. **ERABAKIA:** Eustaten eskaera, EAEko Eraikin eta Lokalen Erroldan irisgarritasun-baldintzak sartzeari buruzkoa, Euskal Kontseiluko osoko bilkurara helaraztea, bertan onar dadin.

4. **ERABAKIA:** Batzorde Iraunkorreko Burutzak Batzordeko kideei eskatuko die egokitzen jotzen dituzten ekarpen edo proposamen dokumentatuak egiteko eta 68/2000 Dekretua aldatzeko aukera baloratuko duen, eta, hala badagokio, aldatu beharreko alderdiak zehaztuko dituen lan-talderako izendatutako pertsona zein den jakinarazteko.

5. ERABAKIA: Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintzari jakinaraziko zaio planteatutako gaia ez dela Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari egotzitako eskumenen eremukoa.

3.- IRISGARRITASUNAREN GAINEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA

Irisgarritasunaren gaineko Laguntza Teknikoko Zerbitzuak honako jarduerak garatzen ditu:


- Kontsulta tekniko eta juridikoak ebatzi eta aholkuak emateko zerbitzua.
- Babes teknikoa Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta Batzorde Iraunkorrari.
- Laguntza teknikoa Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari.

3.1.- Kontsulta tekniko eta juridikoak ebatzi eta aholkuak emateko zerbitzua.


Arreta-zerbitzu honetan, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiari buruzko kontsulta juridiko eta teknikoak jaso eta erantzuten dira; halaber, oztopo arkitektonikoak ezabatuz irisgarritasuna hobetzeko aurreikusi diren diru-laguntzen ildoetara buruzko orientazioa ematen da. Zerbitzu honek hala behar duten herri-administrazio, erakunde juridiko edo pertsona fisikoei ematen die laguntza, irisgarritasunaren araudia aplikatu behar den jarduera-eremu desberdinei buruzko orientazioa emanez eta denboran zehar aplikaziozko irizpide gisa osatu diren interpretazio-irizpideei buruzko informazioa jakinaraziz.

Zerbitzuak 2010. urtean erantzun dituen kontsultei dagokienez, jarraian laburbilduko den informazioa ondorioztatu daiteke:


Kontsultak ebatzi eta aholkuak emateko zerbitzuak **358 kontsultari** eman die erantzuna 2010. urtean zehar.




Kontsultak **jatorrizko lurralde historikoaren** arabera zenbatzen baditugu, **Bizkaia da kontsulta gehien egin dituen (208) lurraldea**; bigarren postuan Gipuzkoa dago (86) eta hirugarrenean Araba (55). Beste autonomia-erkidego batzuetatik egindako kontsulten eragina murrizta da (9).




Kontsultak egiten dituen **erabiltzailearen profilari** dagokionez, nabarmentzekoa da partikularrek egiten dituzten kontsultak direla nagusi (% 64,53), ondoren erakunde edo administrazio publikoek egindako kontsultak (% 18,71) eta azkenik erakunde pribatuenak (% 16,76).




Erakunde edo administrazio publikoek egindako kontsulten harira, tokiko erakundeek egindako kontsultak administrazioek guztira egindakoen % 82 osatzen dute.



Eremu pribatuan, profesional liberalak eta enpresak dira erabiltzaile nagusiak (% 57) eta ondoren jabeen erkidegoak eta banakako jabeak (% 40). Irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeek egindako kontsultek eremu honetan egindako kontsulta guztien gainerako % 3a osatzen dute.



Zerbitzuak erantzun dituen kontsulten **gaiari erreparatuz gero**, alderdi juridikoei edo diru-laguntza lerroei buruzko kontsultak kopuru osoaren % 62,55 dira eta alderdi teknikoei buruzkoak % 37,44.



Aurreko urteetan bezala, nolabait irisgarritasunari buruzko araudiari hertsiki lotuta dauden araei buruzko kontsultak maiz azaltzen dira. Ildo horretatik, jabetza horizontalari buruzko araudia oraindik ere errealitate honen eredu nabarmena da, erantzundako kontsulten % 41 ordezkatzen du eta. Horrenbestez, ohikoa da Erkidegoen Jabeek egindako kontsulten kasuan irisgarritasunaren araudiarekin lotutako alderdi hertsiki teknikoak beste gai batzuk bihurtzea, besteak beste, erkidegoko eremuko bizikidetzak, hartu beharreko erabakiei buruzko formaltasunak, eskubide partikular desberdinen edo araudi aplikagarrien arteko interferentzia edo garatu nahi diren jardueretarako aurreikus daitezkeen laguntza-ildoak.

Kontsulta indibidualak, normalean, telefono bidez egin eta erantzun dira; hitzordu pertsonala behar izan duten kontsulta gehienak taldekoak izan dira, adibidez hainbat auzokide beren erkidegoetako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak martxan jartzeko arduradun izendatu direnean edo partikularrak lagun, senide do udal-talde teknikoekin batera doazenean, azken horiei irisgarritasunaren araudia aplikatzeko interpretazio-zalantzak sortu zaizkielako; hala ere, banakako kontsulten kasuan ere egin dira hitzordu pertsonalak, nahiz eta, azaldu dugun bezala, ez den ohikoena, era honetako kontsultetan telefonoz berehala erantzun daitezkeen alderdi zehatzak planteatzen direlako eta horrela emandako zerbitzuaren bizkortasuna sustatzen delako.

3.2.- Babes teknikoa Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta Batzorde Iraunkorrari eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari.

Bere jardueraren beste alderdi batean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailerako laguntza teknikoak babes tekniko eta juridikoa eskaintzen die Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari, Batzorde Iraunkorrari, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari, EAEn indarrean dagoen irisgarritasun-araudiarekin lotutako gaietan.

Horren harira, honako ekintza hauek gauzatu dira:

A.- Araudiaren eremuan eta irisgarritasunari dagokionez araudia alderatu eta aztertzen duten lehenengo bi "oinarrizko agiri" egin dira 2010. urtean:

- a) Lehenengo "oinarrizko agiria": irisgarritasunaren eta minusbaliotasundun pertsonen bereizkeriarik ezaren gainean martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duen otsailaren 19ko 173/2010 Errege Dekretua eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua alderatu eta aztertzen ditu.
- b) Lehenengo "oinarrizko agiria": eremu publiko urbanizatuetakoko sarbide eta erabilerarako bereizkeriarik ezaren eta oinarrizko irisgarritasun-baldintzen agiri teknikoa garatzen duen otsailaren 1eko VIV/561/2010 Agindua eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua alderatu eta aztertzen ditu.

Bi agiriak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kideei aurkeztu zitzaizkien 2010eko ekainaren 21eko osoko bilkuraren bileran, baloratu eta horren gaineko iradokizunak egiteko.

Araudi bakoitza aplikatzeko irizpideak zeintzuk izan behar diren zehazteko oinarrizko premisa araudi bakoitzean bermatzaileagoak diren aginduei

lehentasuna ematea izan da. Interpretazio-premisa horrek Euskal Kontseiluko kideen adostasuna jaso du.

B.- Laguntzeko zereginetan Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko osoko bilkuraren 2010eko ekainaren 21eko bilera eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren 2011ko urtarrilaren 27ko bilera (2010. urteari buruzkoa) prestatu eta dokumentatu dira.

Bilerak egin ondoren, horien inguruko aktak idatzi ziren eta hartutako erabakiak kudeatu ziren.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak bideratutako gaien arreta:

- Grupo Popular Vasco – Euskal Talde Popularrak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostenei buruz aurkeztutako idatzizko galderaren erantzuna.
- Grupo Popular Vasco – Euskal Talde Popularrak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren aktei buruz eskatutako informazio dokumentatuaren erantzuna.
- Grupo Popular Vasco – Euskal Talde Popularrak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren aktei buruz eskatutako informazio dokumentatuaren erantzuna.

C.- Beste euskarri-funtzio batzuetan:

- “EAEko irisgarritasunari buruzko araudi-garapena” jardunaldirako agirizko euskarria (2010eko apirilaren 13a. Sevilla).
- Madrilgo jardunaldirako bertaratzea (CEAPAT). Erakundearen ate irekien jardunaldia (2010eko ekainaren 17a).
- Iruñeko Jardunaldira bertaratzea. Gidaritza aurreratuaren sistema unibertsala esparru itxietan. SUGAR proiektua (2010eko azaroaren 17a).
- Bilboko lan-jardunaldira bertaratzea. “Zahartzaroa eta arreta-zerbitzu berriak etxean” proiektuaren aurkezpena. Zamudioko Parke Teknologikoa. Matía Institutu Gerontologikoa, Innobasque-kin lankidetzan (2010eko abenduaren 13a).

Halaber, irisgarritasunaren gaineko laguntza-zerbitzuari Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatutako prozeduretan esku hartzeko deia egin zaio, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak eskatuta. Besteak beste:

- Etxebizitza-erreserben espedienteak.
- Etxebizitza babestua egokitzeko espedienteak.
- Askapen-eskaeren espedienteak.

Erakundea	Lurraldea	Gaia
Sustatzailea	Bizkaia	Sustapen libreko bi (2) etxebizitza eta eranskinak askatzea.
Sustatzailea	Gipuzkoa	Sustapen libreko hiru (3) aparkaleku-partzela askatzea.
Sustatzailea	Bizkaia	Etxebizitzak eta aparkalekuak (2) askatzeko prozedurari buruzko informazioa.
Udala	Bizkaia	Etxebizitza askatzeari buruzko informazioa.
Partikularra	Araba	Etxebizitza babestu egokitua adjudikatzeko espedientea.
Partikularra	Gipuzkoa	Sustapen libreko etxebizitza erreserbatzeari buruzko informazioa.
Sustatzailea	Bizkaia	Sustapen libreko etxebizitza (1) askatzea.
Sustatzailea	Bizkaia	Sustapen libreko etxebizitza (2) askatzea.
Sustatzailea	Bizkaia	Sustapen librean askatzeko prozedurari buruzko informazioa.
Sustatzailea	Araba	Sustapen libreko etxebizitzak askatzeko prozedura.

4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PLANTEATUTAKO GAIEN LABURPENA

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak erantzundako kontsultak irisgarritasunarekin zuzenean edo zeharka lotutako gaietarako buruzkoak dira. Hori horrela, era desberdinetako kontsultak daude: indarreko irisgarritasun-araudiaren interpretazioari buruzko kontsultak eta jarduera-eremuak bat datozelako aplikagarriak diren beste araudi batzuei buruzko kontsultak nahiz administrazio-prozedurei edo finantza-laguntzei buruzkoak.

4.1.- Txosten-eskaerak: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari erantzun-txostena egiteko eskatu zaio 2010. urtean, 11 espedientetan:

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia
01.10 ACC	Udala	Gipuzkoa	Irisgarritasun-araudia aplikatzea, bereizketa-kasuetan.
02.10 ACC	Udala	Bizkaia	Udal etxebizitza tasatuaren sustapeneko etxebizitza erreserbatzea.
03.10 ACC	Udala	Araba	Irisgarritasunaren araudia betetzea eta lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.
04.10 ACC	Auzi Administrazio arekiko Epaitegia	Gipuzkoa	Araudi-aurreikuspenak eta 20/1997 Legearen aplikazio-eremua.
05.10 ACC	Udala	Gipuzkoa	Bide publikoan terrazak instalatzeari buruzko araudi-aurreikuspenak.
06.10 ACC	Elkartea	Araba	Administrazio eskudunari eskaeraren berri eman zaio.
07.10 ACC	Elkartea	Bizkaia	Mugikortasun murriztuko pertsonen erreserbatutako partzelak.
08.10 ACC	Partikularra	Bizkaia	Minusbalotasundun pertsonen etxebizitza erreserbatzea.
09.10 ACC	Auzi Administrazio arekiko Epaitegia	Araba	Irisgarritasun-araudiaren betearazpenaren salbuespena ematea eta ISEKi helaraztea.
10.10 ACC	Profesionala	Gipuzkoa	Hiri-inguruan dauden eskaileretako eskubandei buruzko araudi-aurreikuspenak.
11.10 ACC	Udala	Gipuzkoa	Sarbideetan ate birakariak jartzea.

Zerbitzuak erantzun dituen kontsultak aztertu ondoren, honakoa azpimarratu daiteke:

1. Egungo irisgarritasun-araudia baino lehen existitzen ziren etxebizitza-erakinetan igogailuak instalatzeari buruzko kontsulta-kopurua handia izan da. Halaber, jarduera-eremu horretan, erkidegoko erabakiak hartzeari buruzko erabakiekin eta baloratu beharreko esku-hartze aukera desberdinekin batera, obren gastuari aurre egiteko diru-laguntza lerroei buruzko informazio-eskaera etengabea da.
2. Jabeen Erkidegoetako ordezkariak nahiz finka-administratzaile eta udal-teknikariak egoitza-erakinetan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko esku-hartzei buruzko alderdi teknikoak kontsultatu dituzte. Hori horrela, ohikoak dira araudian eskatutakoak baino dimentsio baxuagoak dituzten igogailuak instalatzeko aukerei buruzko kontsultak edo trasteleku edo aparkalekuetan aurreikusitako geldialdien bidez eraikineko komunikazio bertikala bermatzeko beharrianari buruzkoak nahiz oztopo arkitektonikoak ezabatzeak eskaileren zabaleretan izan dezakeen eraginari eta suteen araudiari buruzkoak.
3. Etxebizitza sustatzeko eremuan igo egin da etxebizitzaren erreserbarekin eta sustapen libreko etxebizitza erreserbatuak askatzeko prozedurekin lotutako kontsulten kopurua.
4. Bestetik, kontsulta ugari egon dira 68/200 Dekretuko V. eranskinaren aplikazioarekin (aurretik dauden urbanizazio eta eraikuntzak zaharberritu, handitu edo aldatzea), praktikotasun-irizpideen aplikazioarekin eta betearazpenerako salbuespenak emateko aukerarekin lotuta.
5. Eraikuntza berriko etxebizitzaren kasuan, eremu komunei (trastelekuak, eskailerak, korridoreak..) buruzko kontsultak gailentzen dira.
6. Etxebizitza erreserbatuen moldaketetan maiz agertzen dira bainugelak egokitzeari buruzko kontsultak. Gai hori sarritan planteatzen da etxebizitza libre zaharren kasuan ere, jabeek moldaketak egin behar dituztelako beren adin nagusia dela eta. Halaber, moldaketa edo egokitzapen horiek egiteko diru-laguntzei buruzko informazioa eskatzen dute.
7. Jabeen Erkidegoetan antzeman ahal izan denez, zero kotan igogailua instalatzeak kostu handia sortzen duenez, igoera bertikal edo zehharreko plataformak instalatzeari, horren neurriei, derrigortasunari eta egokitasunari buruzko kontsultak anitzak dira.

8. Kontsultara iristen den kasuistika erreparatuz gero, bistakoa da lizentzia eta baimenak ematen direnean irisgarritasun-baldintza onenak betetzeko eskatzean lasaitasuna nagusi dela eta administrazio guztien artean koordinazio eta bizkortasun handiagoa behar dela.
9. Profesional, teknikari eta partikularrek etxebizitza erreserbatuak askatzeko prozedurari buruz egindako kontsulten maiztasuna.
10. Erabaki lotesleak hartzeko beharrezko quorumak lortu ez diren kasuetan bete beharreko jarraibideei buruzko informazioa eskatu da eta igogailuak instalatzeko desjabetze-ordenantzak dituzten udalerrietan aurreikusitako mekanismoen gaineko interes berezia antzeman da.
11. Tokiko erakundeek oztopo arkitektonikoak ezabatzeko aurreikusitako diru-laguntzak igotzeko eskatu dute, horrelako esku-hartzeek kostu handia dutela eta aurrekontu-mugak dituztela arrazoituta.

4.2.- 2010. urteko salbuespenen jakinarazpena.

68/2000 Dekretuko V. eranskineko 3.3 artikuluan (urbanizazio eta eraikuntzak zaharberritu, handitu edo aldatzeko obrak) xedatutakoa betetzeko, 2010. urtean irisgarritasun-araudia betetzetik salbuesteko **137 espediente** jakinarazi zaizkio Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari.

Erregistroa	Udala	Arrazoa
01.10 EXE/CVPA	Durango	Artekalea 7. zenbakian dagoen etxebizitza-eraikineko eskailera ordezkatzeko obrak. Eskailera ordezkatu eta atariko irtengunea ezabatu da, baina atariaren zabalera ezin da handitu eta bideraezina da komunikazio bertikala erraztuko duen igogailu bat instalatzea, espazio faltagatik: bestela, udal-irizpide teknikoaren arabera eta proiektua aztertu ondoren, etxebizitzetako bizigarritasun-baldintzak murriztuko dira eta aurrekontu neurrigabea egongo litzateke.
02.10 EXE/CVPA	Durango	Montevideo 1en igogailua instalatzea. Igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez salbuetsi dute, erabilgarri dagoen espazioa dela eta, nahiz eta instalazioa eraikinaren atzealdeko aireztapen-patioan kokatzen den, eskaileraren zuloko tartea oraindik murriztagoa zelako.
03.10 EXE/CVPA	Azkoitia	Jandionaniz 3 etxabeen medikuntza alternatiboko jarduera baimentzeko eskaera jakinarazi dute. Betearazpenaren salbuespena eman izanaren berri eman dute, baina ez dute jakinarazi egin diren obrei edota salbuetsi diren alderdi buruzko daturik. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. Lokalean ez dela inolako obrarik egin jakinarazi dute (2010eko otsailaren 19a).
04.10 EXE/CVPA	Igorre	Agirre Lehendakaria 9an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin dute, instalazioaren (kabina) dimentsioei eta inguruari dagokienez, eraikinaren tipologia oinarrituta.
05.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidea aldatu eta berau ordeztzeko obrak Juan Sebastian Elcano 21en. Salbuetsi egin dira beheko solairuko igogailurako sarreran eta atarirako sarreran ematen diren diametro-zirkuluei dagokienez, atariko dimentsioek ez dutelako egokitzapena ahalbidetzen.
06.10 EXE/CVPA	Bilbo	ISEKen 13.01.10eko txostena jaso da, Arraiz-Artigaseko Plan Bereziko "Arraiz" azpi-arloko Urbanizazio Proiektuari (I. fasea) buruzkoa; lursailaren baldintzek salbuespena arrazoitzen dutela zehaztu da.
07.10 EXE/CVPA	Zarautz	Obrak Egaña Kalea 13n (mendebaldeko izkina) dagoen lokalean, espazioa egokitu eta alkoholik gabeko edarien eta hutsean ontziratutako elikagaien makina saltzaileak (vending) jartzeko, bulego eta guzti. Salbuetsi egin dira, lokalerako sarbideari dagokionez. Izan ere, malda bat jartzeko, eraikinaren egitura orokorrean esku hartu beharko litzateke, batez ere sotoko horma koroatzen duen habearen eta beheko solairuko lurzoruaren zolatan; egiaztatu ahal izan denez, habexkak goiko habearen eusten diren eta beraz, bertan jarduteko, dagoen egituraren tipologia aldatu beharko litzateke.



Erregistroa	Udala	Arrazoiak
08.10 EXE/CVPA	Amorebieta- Etxano	Landeta kaleko 2. zenbakiko higiezinako atarian dagoen desnibela ezabatzeko eta igogailua aldatzeko obrak. Salbuetsi egin dira, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, atariaren kotan instalatu eta beharrezko eskailera-tarteak sortuta ere, egungo igogailua ez delako ordezkaturiko. Beraz, igogailuaren kabina berdina mantenduko da, bestela egungo eskailera ezabatu beharko bailitzateke, bertako zuloa handitzeko.
09.10EXE/ CVPA	Laudio	Jose Arrue 1en igogailua instalatzea. Udalak proiektua egin duen arkitektoari eskatu dio irisgarritasun-araudia ez betetzeko arrazoiak zehazteko. Igogailua kanpotik egin da, erdiko eskailera-buruetara doa eta araudian aurreikusitakoak baino dimentsio txikiagoko kabina bat dauka; ez da elementu mekaniko osagarriak instalatu, eskailera-buruen eta etxebizitzetako solairuen arteko tarteak libratzeko kostu ekonomiko altuan. Gainera, azaldutako mugak gorabehera, higiezinaren egungo irisgarritasun-baldintzak hobetzen direla uste da.
10.10 EXE/CVPA	Arrasate	Elkano kaleko 5. zenbakiko ataria zaharberritzea. Praktikotasunaren eta salbuespenaren irizpideak aplikatu dira, honako alderdietan dauden espazio-mugak direla eta: kanpoko sarbidea, malda eta igogailurako sarbidea. Obrek ez diete egungo igogailuari eta eskailera-kutxari eragiten.
11.10 EXE/CVPA	Durango	Kalebarria 2n igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren eta planta bakoitzeko itxarote-guneen dimentsioei dagokienez. Izan ere, eraikinaren babes tipologikoaren baldintzek eta aurrekontu erabilgarriak baldintzatu egiten dute igogailuaren kokalekua egungo eskaileraren zuloan, espazio erabilgarria muga bat delarik. Lizentzia eman da, atarirako sarbidean irtenguneak ezabatzeko baldintzapean.
12.10 EXE/CVPA	Bergara	Mahasterreka 18n igogailua instalatzea. Udalak arkitektoaren proiektua bidali dio ISEKI, baina ez da salbuespenak eman diren edo ez edo arrazoiak zeintzuk diren azaltzen duen udal-txosten teknikoaren erantsi. UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN ESKUTIK INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. Udal-txosten teknikoaren arabera emandako lizentziari buruz jakinarazi da (2010eko martxoaren 5a), igogailuko kabinaren dimentsioak betetzearen aurka eta horretatik salbuetsita, eraikinaren beraren mugak eta udalerriko multzo monumentalean duen kokalekua dela eta.
13.10 EXE/CVPA	Legazpi	Nafarroa kaleko 25ean eskailera zaharberritzeko eta igogailua instalatzeko obrak. Salbuetsi egin dira igogailuko kabinaren dimentsioei eta lehorreratzei dagokienez, hartutako irtenbidea egokiena delako, udal-irizpide teknikoaren esanetan.
14.10 EXE/CVPA	Legazpi	Urtatza auzoko 22. zenbakian igogailua instalatzeko obrak. Salbuetsi egin dira eskailerako zuloan instalatzen den igogailuko kabinaren dimentsioei eta lehorreratzei dagokienez, ezinekoa delako irtenbide egokiagoa bilatzea, udal-irizpide teknikoaren ustez.
15.10 EXE/CVPA	Getxo	Gobela 1eko aseguru-bulegoko obrak. Lizentzia eman da, irisgarritasun-araudia betetzeko baldintzapean, lokaleko komunei eta sarbide mekanizatua izateari dagokienez. Izan ere, Kodeak ez du ahalbidetzen forjaketa kentzea, sarbide-malda bat egiteko.
16.10 EXE/CVPA	Zarautz	Matxitxako kaleko 4. zenbakian A, B eta C atarietako igogailuak estalpeko 1. solairuraino luzatzeko obrak. Salbuetsi egin dira, igogailuko kabinaren dimentsioei eta atearen zabalerari dagokienez, geraleku berrian lehengo igogailu eta espazio erabilgarrien mugak daudelako.



Erregistroa	Udala	Arrazoia
17.10 EXE/CVPA	Igorre	Agirre Lehendakaria 29an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, erabilgarri dagoen espazioagatik, nahiz eta proiektuan igogailua eraikuntzaren kanpoaldetik planteatzen den, eta eraikineko lonja baten eta patio erantsiaren parte bat okupatzen duelako.
18.10 EXE/CVPA	Amorebieta- Etxano	Karmen kaleko 31. zenbakiko 1. blokeko igogailuko kuota jaisteko obrak. Salbuetsi egin dira, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, erabilgarri dagoen espazioagatik.
19.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Los Angeles multzoko 7. zenbakiko lokala bost trastelekurako egokitzea. Salbuetsi egin da, sarbideari dagokionez. Izan ere, malda bat egin ezin denez (lokala kalea baino 1,47 metro baxuago dago), sarbidea eskailera bidez egitea aurreikusi da.
20.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Igogailuaren instalazioa Sagasti kaleko 2. zenbakian. Salbuetsi egin da, igogailuaren dimentsioei dagokienez, bere kokaleku den eskaileraren zuloan erabilgarri dauden dimentsioengatik.
21.10 EXE/CVPA	Zarautz	Mendilauta 21en igogailuko ibilbidea estalpeko solairuraino luzatzeko obrak. Ez da udaleko txosten teknikoa sartu. BEREIZITA IRITSI DEN EGIAZTATU.
22.10 EXE/CVPA	Getxo	Jolastokieta kaleko 2. zenbakian lokala Borroka Arteetarako Eskola gisa egokitzeko obra eta jardueretako lizentzia. Obretako lizentzia eman da, sarbidea eta bainugela egokitzeko baldintzapean.
23.10 EXE/CVPA	Arrasate	Antso Abarka 4an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei eta pasatzeko zabalera libreari dagokienez, eraikinean erabilgarri dauden neurriengatik.
24.10 EXE/CVPA	Bergara	Arane Erreka 26an igogailua instalatzea. Obretako udal-lizentzia eman da, udal-aparejadorearen kontrako txostenarekin, aparatuaren dimentsioak eta ateetatik pasatzeko eremu libreak direla eta.
25.10 EXE/CVPA	Errenteria	Alfontso XIko 9. zenbakian igogailua instalatzea. Eskailerako zuloan igogailua instalatu da eta salbuespena eman da, egitura-ezaugarriak eta eremu erabilgarriak direla eta. Esku-hartzak ez die solairuetako eskailera-tarteei eragiten eta eskailerako lehenengo tartea ezabatu da, igogailura oztoporik gabe iritsi ahal izateko.
26.10 EXE/CVPA	Zaldibar	Arantzamendi kaleko beheko solairuan "pintxoen taberna eta prentsa-saltokia" jarduera legezztatzea. ISEK jakinaren gainean jarri da, nahiz eta ez den obrarik gauzatu.
27.10 EXE/CVPA	Laudio	Vitoria kaleko 14. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da, instalazioaren osaerak ez duelako igogailura sartzen uzten etxebizitza-solairu bakoitzean, eraikinaren osaera dela eta.
28.10 EXE/CVPA	Arrasate	Aldaigan kaleko 11. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez. Proiektua egin duen arkitektoaren argudioak hartu dira aintzat, igogailuaren kokaleku den eskailerako zuloak dimentsioak ikusita esku hartzea justifikatzen delarik.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
29.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Alberdi kaleko 8. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, eskailera-kutxak dituen dimentsioengatik. Jakinarazitakoaren arabera, praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira igogailuaren sarbidearen eta kanpoaldearen arteko desnibela libratzen duen malda gauzatzean.
30.10 EXE/CVPA	Etxebarri	Ibai Ondo 5en igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, dagoen espazioagatik, nahiz eta eskaileraren zabalera murriztu egin den; atariaren maila espaloia-oren kotara jaitsi da.
31.10 EXE/CVPA	Zarautz	Izeta Plaza 4an igogailua ordezkatzeko obrak. Salbuetsi egin dira igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, eraikinaren tipologian eta bere egitura-mugetan oinarrituta.
32.10 EXE/CVPA	Bergara	Ibaiondo Ibiltokiko 1. zenbakiko etxebizitza-eraikinean, trastelekuetan eta aparkalekuetan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak. Salbuetsi egin dira igogailuko kabinaren dimentsioei eta sarbide-atetik pasatzeko zabalera libreari dagokienez, eraikinaren egiturak eta ezaugarriek mugatu egin dutelako gauzatu beharreko esku-hartzea.
33.10 EXE/CVPA	Sestao	La Paz multzoko 7. zenbakian igogailua instalatzea. Igogailuko kabinaren dimentsioak (planoaren arabera) ez dira egokitzen araudian aurreikusitakoetara, igogailuaren lekualdaketa eta eskailerako zabalera-aren murrizketa gorabehera.
34.10 EXE/CVPA	Zarautz	Zigordia 50en dagoen eraikinean igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da beheko solairuan igogailura sartzeko plataforman dagoen zirkuluarri dagokionez, eraikinaren egitura-ezaugarrien ondorioz ezin delako araudi-aurreikuspenetara egokitu.
35.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Euskadi etorbideko 79an fatxadatik igogailua instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu direla jakinarazi da, igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez. Salbuespena eman da, ezinezkoa delako eskailera-zatia libratzea etxebizitza-solairuetatik bertara sartzeko, tarteko eskailera-buruetan lehorreratuz; halaber, lehorreratzeko gutxienezko diametroei dagokienez ere salbuetsi da. Eraikinaren egitura-ezaugarrietan eta forman emandako salbuespen guztiak justifikatu dira.
36.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Pormetxeta 11n igogailua instalatzea. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei (eskailera-kutxako dimentsioetan oinarritua) eta igogailuko kanpoaldetiko sarbideari dagokienez, dagoen desnibela ezin baita ezabatu, atariaren zolata pikatzea ezinezkoa delako, azpian soto bat dago eta.
37.10 EXE/CVPA	Zarautz	Bixkonde kaleko 3. zenbakian igogailua instalatzea. Eraikinaren egituraren eta tipologian justifikatu dute igogailuko kabinaren dimentsioetako salbuespena eta igogailura sartzeko plataforman inskribatu daitekeen zirkulua, beheko solairuan.
38.10 EXE/CVPA	Sestao	Antonio Trueba kaleko 9. zenbakian igogailua instalatzea. Irigarritasunaren araudira egokitzeko ezintasuna jakinarazi diote ISEKi, baina ez dira zehaztu salbuesten diren alderdiak eta ez dira salbuespenak justifikatu. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
39.10 EXE/CVPA	Sestao	Iparragirre kaleko 4. zenbakian igogailua instalatzea. Irisgarritasunaren araudira egokitzeko ezintasuna jakinarazi diote ISEKi, baina ez dira zehaztu salbuesten diren alderdiak eta ez dira salbuespenak justifikatu. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU.
40.10 EXE/CVPA	Errenteria	Aizpirate Pasabidea 5en igogailu berria instalatzea, dagoena aldatuz. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, espazio fisikoaren mugetan eta eraikinaren egitura-mugetan oinarrituta: obrek atariari, eskailerari (murriztu egin da) eta igogailuari eragin diete, azken horren ordez ahalik eta zabalena den beste bat jarritz.
41.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Portu kaleko 13. zenbakian igogailua instalatzea -egungo ibilbidea handitu eta egungo aparatua ordezkatzeari-. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, espazio erabilgarria falta delako, eta, ezin delako zolata pikatu, behean soto bat dago-eta. Igogailuko sarbidearen eta kanpoaldearen artean dagoen desnibela mantendu da.
42.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Primero de Mayo multzoko 4. zenbakian fatxadatik igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, onetsitako azterlan zehatzean ez delako aurreikusten bide publikoaren okupazio handiagoa; salbuetsi egin da igogailuko sarreretako diametro libreko zirkuluei dagokienez, aldatu ez den eskailera-kutxako espazio urriagatik.
43.10 EXE/CVPA	Zumarraga	Urola 6an igogailua instalatzea. Igogailuko kabinaren dimentsioak salbuetsi egin dira, eskailerako zabalera murriztu arren espazio nahikoa falta delako. Igogailurako sarbidea ezin izan da kalearen kotan aurreikusitako, eta, beraz, plataforma bat instalatu behar da.
44.10 EXE/CVPA	Basauri	Gipuzkoa 9an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei, pasatzeko gutxienezko zabalera eta igogailura sartu eta irteteko eskailera-buruko dimentsioei dagokienez, eskailerako zabalera murriztu arren espazio erabilgarria falta delako.
45.10 EXE/CVPA	Arrasate	Atarira sartzeko malda egitea Makatzena kaleko 17an. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira, proiektatu den malda dela eta.
46.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Euskadi Etorbideko 38an igogailua instalatzea, fatxadatik eskailera berreraikita. ISEKi esku-hartzearen berri eman zaio, irisgarritasun-araudia betetzeko salbuespena eman izana adierazi gabe. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. Udaleko arkitekto teknikoak txostena bidali dio ISEKi, irisgarritasunaren araudia betearazteari buruz (2010eko maiatzaren 20a).
47.10 EXE/CVPA	Errenteria	Francisko Gazkue kaleko 1. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuespena eman dela jakinarazi dute, baina ez da zehaztu ez justifikatu emakida. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. 2010eko maiatzaren 25ean, barruko patioan igogailua instalatzeari, kabinaren dimentsioei eta beira laminatu zehargarriaren bidezko itxierari buruz jakinarazi da.
48.10 EXE/CVPA	Errenteria	Alfonso XIren kaleko 11. zenbakian igogailua instalatzea. Atarian dauden hiru eskailera-tarteak ezabatzeke ezintasunaren berri eman da. Bat baino ez da ezabatu, espazio-faltagatik eta dauden egitura-ezaugarriengatik. Igogailu-kutxa ez da estalkiraino iristen.



Erregistroa	Udala	Arrazoia
49.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Gaztela-Mantxako 18. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuespena aplikatu da igogailuko kabinaren dimentsioei eta igogailurako sarbideko eta atariko pasabide libreari dagokionez, eskailerako lauzak eta horren dimentsioek eragotzi egiten dute eta.
50.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Veintidós de Enero kaleko 2. etxabeen lokala lorategi gisa egokitzeo obrak. Salbuetsi egin dira lokalerako sarbideari dagokionez, eraikinaren sotoan ibilgailuen aparkaleku bat dagoenez ezinezkoa baita sarbide-malda egitea.
51.10 EXE/CVPA	Zarautz	Zigordia kaleko 32. zenbakian elikagaiak saltzeko lokala irekitzeko lizentzia; ez da zaharberrikuntza-obra egin.
52.10 EXE/CVPA	Sestao	Julian Gayarre 8an igogailua instalatzea. Eskaileraren zabalera murriztearen berri eman dute, horrela higiezinan igogailua instalatzea errazago izango baita. Baina ez da aipatu irisgarritasunaren eremuan zein alderdiri egotzi zaion salbuespena eta ez da horretarako arrazoirik eman. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU.
53.10 EXE/CVPA	Sestao	Lorenzo Llona 8an igogailua instalatzea. Eskaileraren zabalera murriztearen berri eman dute, horrela higiezinan igogailua instalatzea errazago izango baita. Baina ez da aipatu irisgarritasunaren eremuan zein alderdiri egotzi zaion salbuespena eta ez da horretarako arrazoirik eman. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU.
54.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Lurquizaga kaleko 18an igogailua instalatzea, patiotik eskailera berreraikita. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokionez, eskailera-kutxaren dimentsioak direla eta.
55.10 EXE/CVPA	Basauri	Cataluña kaleko 20an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokionez, erabilgarri dagoen espazioagatik.
56.10 EXE/CVPA	Sestao	Txabarri kaleko 26an igogailua instalatzea. Eskaileraren zabalera murriztearen berri eman dute, horrela higiezinan igogailua instalatzea errazagoa izan dadin. Baina ez dute adierazi irisgarritasunaren alorrean salbuetsi diren alderdiak eta ez dira salbuespenak arrazoitut. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU.
57.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan Sebastian Elcano 10ean lokala ile-apaindegi izateko egokitzea. Beteazpenaren gaineko salbuespena justifikatu da, bainugela egokitzeari dagokionez, lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago okupatuko lukeelako.
58.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Retuerto kaleko 60. zenbakian dagoen Max Center merkataritza-etxeko A-52 lokala egokitzeo obrak, ile-apaindegi bihurtzeko. Salbuetsi egin dira bainugela egokitzeari dagokionez, lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago okupatuko lukeelako.
59.10 EXE/CVPA	Getxo	C.P. Angel etorbideko 36. zenbakian sarbide-malda egiteko obrak. Ez da emandako salbuespena zehaztu, ez eta horretarako arrazoirik eman ere. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. 2010eko uztailaren 28an jakinarazitakoaren arabera, salbuespena maldari dagokionez eman da, berau garatzeko ibilbide handiagorako espazioa falta delako.
60.10 EXE/CVPA	Zarautz	Gipuzkoa 10ean igogailua instalatzea. Eraikinaren tipologian, egitura-mugetan eta neurrigabetasun ekonomikoko alderdietan justifikatu dute beheko solairuko igogailura sartzeko plataformetan inskribatu daitekeen diametro-zirkulua eta goiko solairuetan eskailera-buruetatik bertara sartzeko egindako maldak betetzeko salbuespena.

Erregistroa	Udala	Arrazoa
61.10 EXE/CVPA	Bilbo	Arraizko Armulaza inguruan tratamendu mekaniko eta biologikorako solairua eraikitzeko sarbide-biderako eta lursail-egokitzapenerako obrak. Proiektua idatzi duten arkitektoek justifikatu egin dute irisgarritasunaren araudia betetzeko salbuespena oinezkoen ibilbideetako gutxienezko maldari dagokienez, bideari ematen zaion erabileran eta lursailaren orografian.
62.10 EXE/CVPA	Agurain	Tres de Marzoko 4. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei eta igogailuaren parean dauden lehorreratzeko espazioei dagokienez, espazio erabilgarria dela eta.
63.10 EXE/CVPA	Azkoitia	Inazio Iriarte Margolaria 21en igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren eta atearen dimentsioei dagokienez, erabilgarri dagoen espazioagatik.
64.10 EXE/CVPA	Agurain	Tres de Marzoko 2. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei eta igogailuaren parean dauden lehorreratzeko espazioei dagokienez, espazio erabilgarria dela eta.
65.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Zuloaga kaleko 1. zenbakian lokala 38 trastelekurako egokitzea. Salbuetsi egin da sarbideari dagokionez eta malda bat egitea ezinezkoa dela justifikatu da, formaren ezaugarrietan oinarrituta, gehiegizko aldapa izango lukeelako.
66.10 EXE/CVPA	Erreterria	Alaberga auzoko 3. zenbakian igogailua instalatzea. Lizentzia eman dela eta salbuespena eman dela jakinarazi da, espazio fisikoaren mugetan eta egitura-baldintzetan oinarrituta (eskailera-zangoak urratu dira, igogailuaren zuloa handitzeko, eta eskailera berri bat egin da fatxadaren lerrokaduren gainetik).
67.10 EXE/CVPA	Basauri	Urbi kaleko 49an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da igogailuko dimentsioei dagokienez, erabilgarri dagoen espazioagatik.
68.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Arrandi 30ean igogailua instalatzea. Eskailera-kutxaren osaeran eta dimentsioetan justifikatu dute ezinezkoa dela etxebizitza-solairuetan lehorreratuko duen igogailua instalatzea edo igogailuetara sartzeko plataformetan azalera egokia jartzea; kabinaren dimentsioak praktikotasunaren irizpideetara egokitzen direla jakinarazi da.
69.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Gernikako Arbola 27an igogailuaren ibilbidea aldatzeko obrak. Higiezinerako sarbidean dagoen maila ezabatzea ezinezkoa dela justifikatu dute, hormigoizko horma bat dagoelako.
70.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan Sebastián Elcano 12an igogailua instalatzea. Atariko egitura-ezaugarrietan eta forman eta eskailera-kutxan justifikatu da emandako salbuespena kabinaren dimentsioei dagokienez; jakinarazitakoaren arabera, udalaren bisita teknikoa egitean egiaztatu zen Minos Plana modeloko aulki bat sartu litekeela.
71.10 EXE/CVPA	Igorre	Olabarri 10-1en malda egitea. Salbuespena eman da malda-mailari dagokionez, higiezinaren ezaugarrietan oinarrituta.
72.10 EXE/CVPA	Zumaia	Basadi auzategiko 14-etxabeen bizikletak saldu eta konpontzeko jarduera-espeditante baten berri eman da; ez da obrarik egin.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
73.10 EXE/CVPA	Barakaldo	San Juan 22an igogailua instalatzea. Emandako salbuespenen berri eman da (higiezinan dauden aukeren arabera) atariko atearen zabalerari, lehen eta bigarren mailako korridoreei, etxebizitzetara sartzeko plataformei eta igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, eta, jakinarazitakoaren arabera, igogailua eskailerako zulo nagusitik instalatu da, ezinezkoa delako igogailua patiotik (gastu neurrigabea delako) edo fatxadatik instalatzea (higiezinak eta espaloiaaren ezaugarriek eragozten dute).
74.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Plaza de Cruces 3an igogailuaren ibilbidea aldatzea eta ataria zaharberritzea. Beheko solairuko lehorreratzeari eta igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez emandako salbuespena jakinarazi da, erabilgarri dagoen espazio-falta justifikatuta.
75.10 EXE/CVPA	Zaldibar	Euskal Herria z/g-n lokala diseinu-estudiorako eta higiezin salmentarako egokitzeko obrak. Salbuetsi egin dira kalearen eta lokalaren arteko kotaren aldeari dagokionez, ezin baita libratu, egiturako gatina perimetrala delako.
76.10 EXE/CVPA	Errenteria	Donostia kaleko 24an igogailua instalatzea. Eskailerako zuloan eta kaleko kotan instalatu da, sarbidean zegoen eskailera-tartea libratuz, eta bosgarren solairuraino iristen da; salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, egitura-ezaugarriak eta espazio erabilgarria direla eta.
77.10 EXE/CVPA	Ondarroa	Zaldupe eta Aieri artean dagoen oinezkoen pasabidea egokitzeko proiektua. Oinezkoaren irisgarritasuna hartzen du diseinu eta antolamendurako irizpide gisa, baita materialen eta akaberen eraginkortasun energetikoa eta iraunkortasuna ere. Salbuetsi egin da bideko kota errepedekoarekiko berdintzeko aurreikusitako mozketari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak (URA) baloratutakoaren arabera.
78.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Igogailuaren ibilbidea, aldatzeko eta berau ordezkatzeko obrak Arauti kaleko 16an. Salbuetsi egin dira eraikinerako sartzeko espazio libre horizontalari dagokionez, espazio-falta dela eta; maldan, topaketa eta biraketako eskailera-buruaren gutxienezko zabalerari dagokionez salbuetsi da, espazio-faltagatik eta sarbide-diametroagatik, zuloa falta baita; igogailuko kabinaren dimentsioei dagokionez salbuetsi egin da, egungo eskaileraren zuloa mantentzen du eta.
79.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Leon kaleko 3an igogailua fatxada nagusitik instalatzea. Ezinezkoa da barruko igogailua instalatzea, eskailerako zuloan espazioa falta delako eta ez dagoelako erkidegoko patiorik; igogailuko lehorreratzeari dagokionez salbuetsi egin da, ez baita zilegi etxebizitza-solairuetan, baizik eta solairuen bitarteko eskailera-buruetan.
80.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Leon kaleko 5ean igogailua fatxada nagusitik instalatzea. Ezinezkoa da barruko igogailua instalatzea, eskailerako zuloan espazioa falta delako eta ez dagoelako erkidegoko patiorik; igogailuko lehorreratzeari dagokionez salbuetsi egin da, ez baita zilegi etxebizitza-solairuetan, baizik eta solairuen bitarteko eskailera-buruetan. Jarduera bat dator aurreko salbuespen-espeditarekin.
81.10 EXE/CVPA	Zarautz	Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta eraikina konpontzeko obrak Zumalakarregi 17/Mendilauta 18Bn. Salbuetsi egin dira maldaren hasieran eta sarrera-atearen aurreko espazioan inskribatu beharreko oztoporik gabeko zirkulari dagokionez, baita maldari dagokionez ere, eraikinaren tipologian eta egituraren oinarrituta.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
82.10EXE/ CVPA	Barakaldo	Aldapa 10ean igogailua instalatzeko obrak. Salbuetsi egin dira lehen eta bigarren mailako korridoreetako dimentsioei dagokienez, horiek murriztu egiten baitira instalazioa ahalbidetzeko, baita igogailuko kabinari dagokienez, ez dagoelako eskailera-kutxa zabaltzeko zulorik.
83.10 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Geltoki kaleko 15ean igogailua instalatzea eta eskailera berria egitea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, eraikinaren egitura-ezaugarrietan eta forman oinarrituta.
84.10 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Arranbide 12an igogailua instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira atearen bi aldeetan dagoen diametro libreari dagokienez.
85.10 EXE/CVPA	Zumaia	Ribera kaleko 18an dagoen lokalean arropa eta osagarriak saltzeko jardueraren espedientearen berri eman da: nahiz eta ez den obrarik egin, praktikotasunaren irizpideak aplikatzeko arrazioak azaldu dira.
86.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Letxezar 3an igogailua instalatzea. Eraikinaren ezaugarrietan oinarrituta, salbuetsi egin da pasabidearen zabalera, lehorreratzeari eta igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, eskaileraren zabalera murriztu arren.
87.10 EXE/CVPA	Zumarraga	Elizkaleko 7an salbuespena aplikatu da eraikinaren kanpoan egindako maldari dagokienez, atariko forjaketa aldatzeko egitura eta aurrekontua neurrigabeak liratekeelako, atarira karrerapeetatik sartu ahal izateko.
88.10 EXE/CVPA	Bergara	Ibargarai Hiribideko 6. zenbakian igogailua ordezkatzeko eta igogailuaren ibilbidea handitzea. Salbuetsi egin da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, aurkeztutako proiektuan oinarrituta.
89.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Aragon kaleko 7. zenbakian igogailuaren ibilbidea aldatzea. Atariaren kotan igogailua instalatu da eta malda egin da dagoen desnibela libratzeko, atarira kanpoaldetik sartu ahal izateko. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, orain instalatuta dagoen zuloa mantendu delako.
90.10 EXE/CVPA	Basauri	Balendin de Berriotxo 12an igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da solairuetako lehorreratzeari eta igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, alboko lonjaren zati bat okupatu den arren. Informazioa hedatu dute 2010eko irailaren 06an.
91.10 EXE/CVPA	Basauri	Antonio Fernandez kaleko 15. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuetsi egin da lehorreratze-gunean dagoen diametroari eta eskailera-buruen zabalerei dagokienez, espazio erabilgarrian oinarrituta.
92.10 EXE/CVPA	Ezkio-Itsaso	A.I.U. 10 sektorea urbanizatzeko proiektua. Udaleko teknikariak jakinarazi duenez, ekonomikoki eta teknikoki bideraezina da oinezkoentzako bide "logikoa" sortzea, irisgarritasun-arauak betetzen dituelarik. Izan ere, bideak orain dauzkan sestrak aldatzen ez badira, hasiera eta amaierako puntuak bidearen mailak ezarritako eremutik kanpo gelditzen dira.
93.10 EXE/CVPA	Zarautz	Nafarroa kaleko 33an igogailua instalatzea eta bi maila egitea desnibelak libratzeko, eraikinerako sarbide nagusian eta beheko solairuko igogailurako sarreran. Kanpoko maldaren hasieran, atariko atearen parean, 1,50 metroko diametroa duen zirkunferentzia bat inskribatu daiteke eta maldaren amaieran, oraindik finkaren barruan, 0,50 metroko sakonera duen eskailera-burua dago, urbanizaziora sartzeko atearen ondoan. Emandako salbuespenak eraikinaren egitura-oinarrietan eta tipologian oinarritzen dira.
94.10 EXE/CVPA	Tolosa	Zuloaga auzoko 2. zenbakiko eraikinean plataforma jasotzaile bertikala instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira, espazio erabilgarria falta delako, plataformaren dimentsioei eta eduki beharko litzatekeen oztoporik gabeko espazioari dagokienez.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
95.10 EXE/CVPA	Tolosa	Zuloaga auzoko 3. zenbakiko eraikinean plataforma jasotzaile bertikala instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira, plataformaren dimentsioei eta eduki beharko litzatekeen oztoporik gabeko espazioari dagokienez, espazio erabilgarria falta delako.
96.10 EXE/CVPA	Lasarte - Oria	Pablo Mutiozabal 3an igogailua aldatu eta oztopoak ezabatzeko obrak. Salbuetsi egin dira igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez (zero kotan instalatzea aurreikusten da) eta igogailuaren zabalera libreari dagokionez, ateak zabalik daudela, espazio erabilgarria falta delako.
97.10 EXE/CVPA	Zumarraga	Euskadi Plazako 5. etxabeen obretako eta ile-apaindegia jarduerarako lizentzia. Salbuetsi egin da lokalera sartzeko maila ezabatzeari eta bainugela egokitzeari dagokienez, esku-hartze horiek egiteko aurrekontua neurrigabea litzatekeelako.
98.10 EXE/CVPA	Iurretako elizatea	Bixente Kapanaga 15ean igogailua instalatzea. Salbuespena eman da baina ez da adierazi zein alderdiri aplikatu zaien salbuespena eta zeintzuk izan diren horretarako arrazoiak. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU (2010eko urriaren 5a). 2010eko azaroaren 11n jakinarazitakoaren arabera, salbuespena igogailuko dimentsioei buruzkoa da, espazio erabilgarria falta delako, nahiz eta eskaileren zabalera 80 zentimetrotara murriztu den.
99.10 EXE/CVPA	Zarautz	Araba kaleko 2. zenbakian bi zatidun malda bat eginez oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak. Salbuespena eman da maldari eta nahitaezko biraketa inskribatzeko espazio erabilgarriei dagokienez, atariaren dimentsioetan eta bere egitura-mugetan oinarrituta.
100.10 EXE/CVPA	Basauri	Gaztela 20an igogailua instalatzeko obrak. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei eta pasatzeko gutxieneko zabalera libreari dagokienez, espazio erabilgarrian oinarrituta.
101.10 EXE/CVPA	Barakaldo	José Zorrilla 2ko atarian plataforma jasotzailea instalatzea, igogailura sartzeko eskailera-tartea libratzeko. Ez da emandako salbuespena zehaztu, eta, beraz, ez da arrazoirik eman. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU (2010eko urriaren 6a). 10.10.27an txosten teknikoa aurkeztu da, maldari dagokionez (egitura-kausak tarteko) eta kabinaren dimentsioei dagokienez emandako salbuespenak zehaztuz, espazio erabilgarria falta dela argudiatuta.
102.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Arteagabeitia 17an igogailua instalatzea eta malda egitea igogailura sartzeko eta aurreko eskaileren desnibela libratzeko. Ez da salbuetsi diren alderdien gaineko zehaztasunik eman. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU (2010eko urriaren 6a). 10.10.27an, txosten teknikoa aurkeztu da, eraikineko sarbidearen (espazio libre horizontala), lehen eta bigarren mailako korridoreen, maldaren eta igogailuko kabinaren salbuespenak adieraziz, alderdi guztietarako espazioa falta delako.
103.10 EXE/CVPA	Barakaldo	San Vicente kaleko 40. zenbakian igogailua instalatzea. Salbuespeneko edo praktikotasuneko irizpideak aplikatu dira, baina ez da zehaztu zein alderdi salbuetsi diren, ez eta zergatik ere. INFORMAZIOA HEDATZEKO ESKATZEN DUGU. 2010eko azaroaren 9an jakinarazitakoaren arabera, salbuespenak igogailura sartzeko plataformen dimentsioei eta igogailuko kabinaren dimentsioei dagokionez eman dira, bai eta eraikinerà sartzeko espazio libre horizontalari eta bigarren mailako korridoreei dagokienez ere, espazio-faltagatik eta higiezinaren ezaugarriengatik.
104.10 EXE/CVPA	Oñati	Otadui Zuhaitzia 46an igogailua instalatzea. Patioan igogailua egitearen berri eman da. Kabinari eta sarbide-ateari dagokienez, 68/2000 Dekretuko V. eranskinean aurreikusitako praktikotasun-irizpideak aplikatu dira.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
105.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Bizkaia kaleko 46an igogailua instalatzea. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei eta atearen zabalera dagokienez, espazio erabilgarria dela eta.
106.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Plaza de Cruces 14an igogailua fatxadatik instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez eta salbuespena eman da lehorreratzeko aurreikusitakoari dagokionez, obran dauden egiturazko eta formazko ezaugarrietan oinarrituta, bide publikoa okupatu den arren.
107.10 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Ola Kaleko 2. zenbakian malda egiteko obrak. Ez dira 3.2.a) artikulua (atearen bi aldeetako diametroa) eta 3.2.b) artikulua (maldak) bete behar, biak 68/2000 Dekretuko V. eranskinetakoak, gastua, eraikinaren egitura eta forma neurrigabeak direlako.
108.10 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Kontzeju Txiki Plaza 1ean igogailua instalatzea eta eskailera berria egitea. Eraikuntzaren Kode Teknikoko Erabilera eta Irigarritasunaren Segurtasunaren gaineko oinarritzko agiriko 4.2.1.3 artikulua (mailagainaren neurria) eta 4.2.1.1 artikulua (mailagainaren eta mailartean arteko harremana) salbuetsi dira, eraikinaren formazko eta egiturazko baldintzen ondorioz beharrezkoa litzatekeelako jabetzaren mugak aldatuko lituzketen obrak egitea.
109.10 EXE/CVPA	Legazpi	Urtatza 26. zenbakian igogailua instalatzea. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira kabinako dimentsioei dagokienez eta sarbide-atea 80 zentimetro inguru atzeratzea planteatu da, atearen zabalera 80 zentimetrokoa izan dadin.
110.10 EXE/CVPA	Legazpi	Laubide auzoko 1. zenbakiko eraikinean igogailua instalatzea. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez, bide publikoa okupatu den arren.
111.10 EXE/CVPA	Legazpi	Urtatza 2. zenbakian igogailua instalatzea. Udal-teknikariak aldeko txostena egin dio proiektuari, atariko kota kalearen mailara jaisteko baldintzapean; hala ere, esku-hartzearen proiektuak aurkezten duen kabinaren dimentsioek ez dute irigarritasuna bermatzen, eskaileraren zuloan espazioa falta delako.
112.10 EXE/CVPA	Mundaka	Laidatxu hondartzarako sarbidea hobetzeko obrak, itsasertzean espaloia eginda Etxebarriko bidegurutzetik, eskualdeko errepidea eta Laidatxu hondartzara eta Errekara sartzeko bidea elkartzen diren puntuan. Salbuespena aplikatu da zati batzuetan, espaloien zabalera dagokionez, lursailaren ezaugarri topografikoetan oinarrituta.
113.10 EXE/CVPA	Durango.	Juan Itziarko Auzenea 22an atarira sartzeko obrak. Irigarritasun-araudia betetzeko salbuespena eman da eraikinerako sarbidean dagoen desnibela libratzeari dagokionez, horrek eragingo lukeen kostu ekonomikoan oinarrituta.
114.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Arteagagoiko kaleko 8. zenbakian igogailuaren ibilbidea aldatzeko obrak. Salbuespena eman da igogailuko kabinaren dimentsioei dagokienez. Izan ere, alboko lonjako zati bat okupatzen den arren igogailua atariaren kota jaisteko, obrak aparatuaren kokaleku den zuloa errespetatzen du.
115.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Letxezar kaleko 6. zenbakian patiotik igogailua instalatzeko obrak. Praktikotasunaren irizpideak aplikatu dira eta salbuespena eman da etxebizitza-solairuetarako lehorreratzeari dagokionez, espazio erabilgarrian eta forman oinarrituta.



Erregistroa	Udala	Arrazoia
116.10 EXE/CVPA	Barakaldo	Azarin kaleko 3. zenbakian fatxadatik igogailua instalatzea. Salbuespena aplikatu da, forma tarteko, igogailuko kabinaren dimentsioei eta sarbide-plataformetako lehorreratzei dagokienez beheko solairuan eta etxebizitza-solairuetan, baita eraikineran sartzeko espazio libre horizontalean ere.
117.10 EXE/CVPA	Basauri	Igogailua instalatzeko eta estalkia eta fatxada konpontzeko obrak Agirre Lehendakaria kaleko 11. zenbakian. Lizentzia eman da, igogailuko kabinaren dimentsioei eta pasatzeko zabalera libreari dagokienez salbuespena aplikatuta, nahiz eta egongela-jangelako piezen zati bat okupatzen den 10 etxebizitza ukituetan.
118.10 EXE/CVPA	Getxo	Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak (igogailuen gunera sartzeko), Algortako Sastegi 4an. Salbuespena eman da, higiezinaren baldintzetan oinarrituta, beste edozein neurri hartzea zaila delako, nahiz eta hartutako irtenbidean espaloia eta galtzadaren zati bat inbaditu behar den; bi eskailera-zati libratu behar dira, bat atarira sartzeko atea baino lehen eta bestea atariko atetik igogailuen guneraino dagoena.
